



uk

195. zenbakia / 2011ko maiatzaren 23a

Erosi euskaraz eta jostotzara hau jasoko duzu opari

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak, GEHI EUSKARA MERKATARITZARA egitasmoaren barruan, hainbat kanpaina jarri ditu martxan herriko dendetan ere euskararen erabilera bultzatzeko, eta oraingoan, mertzerien txanda heldu da. Merkatarien eta bezeroen artean euskaraz egitea bultzatu nahi dugu. Bezeroak euskaraz eskatzera animatu gura ditugu, eta merkatariei ikusarazi gura diegu euskara kalitate gehigarria dela eskaintzen duten zerbitzuan.

AREETA - ROMO


- BLONDA II** - Artekale z/g
- COLORES** - Klub kale partikularra z/g
- EL BOTÓN** - Artekale 3
- LA CASITA** - Zubieta kalea z/g
- MERCERÍA ANA ALGUER** - Gobela kalea 25
- MERCERÍA JUNCAL** - Errekagane 12
- PANIS** - Paulino Mendibil 20
- PUNTO A PUNTO** - Artekale 4

ALGORTA - ANDRA MARI

- ENTREDOS** - Armezti 10
- FIRU DENDA** - Kasune 19
- KOSE-LO!** - Salsidu 31
- LANAS NICOLE** - Salsidu 29
- MERCERÍA ALBERDI** - Torrene 2
- MERCERÍA ANA** - Bidezabal 15
- PANPOXA** - Maidagan 15 (Malakate parkea)
- SAGARNA TXUKUNTASUN DENDA** - Maidagan 35



(*) Jostotzarak amaitu arte.



MERTZERIAN ere euskaraz




Hizkuntza aholkularitza Getxoko saltokiei
94 415 22 52 • gehi@getxo.net
Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
94 466 00 10 • euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@dizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberero Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentkaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algotako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOIKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

<p>TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTANZTEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111</p>	<p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Cultura</p>	

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Romoko Santa Eugenia plaza.
- LEHEN ETA ORAIN. Areeta etorbidea, Getxo.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Guillermo Verdejo.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. San Isidro Jaiak, Getxo.
- ARGAZKIA. Bizkaiko Dantzari Eguna.
- BERBETAN. Irati Anda.
- FOTOGRAFIA. Aitor Mantuliz.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Zinema Euskaraz programa.
- MUSIKA. Zarauzko Udaberri Fest.
- LIBURUAK. Hausnart aldizkaria.
- KIROLAK. Leioa Waterpolo.
- ELKARRIZKETA. Izarren distira.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. Cinegourland jaialdia.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Getxoko Arteaga Aurrekoa baserrian, 1938.
- AITORMENAK. Julio Soto.

Azala: Aitor Mantuliz

www.ukaldizkaria.biz



30 Irati Anda
Berbetan
Hormetan gora, bertsotan, telebistan... geldirik egon ezin den horietakoa da Irati Anda gasteiztarra.



11 Guillermo Verdejo



54 Julio Soto

WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa RENTACAR
Ibilgaitu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Armando Llamosas

> arkeologoa

UK-ko erromanikoa: ezezaguna

Gure Erdi Aroa ez zen izan oso nabarmena, guretzat bai, jakina, baina ez ginen Europako zentroa aro horretan. Aitzitik, ez geunden Europatik kanpo ere, eta modak guregana ere bazetozen. Arlo batzuetan oso ondo dakigu, bere aztarnak heldu zaizkigu-eta. Heldu bai, baina eza-gutu... Horixe gertatzen zaio gure erromanikoari.

Bizkaiko erromanikoa ez da primera-koa, testuinguruan batez ere. Baina gure lurraldean aztarna horiek garrantzitsuak dira aro ilun samarraren lekuko baitira. Bizkaiko erromaniko "garbiena" Urriben dugu, Fruizen eta Zumetxagan hain zuzen ere. Baita kostaldean ere, hemen bertan.

Barrikan, Andra Mariko elizan, leiho horiek polit bat dugu, xumea, baina polita. Hor ikus ditzakegu leiho erromanikoen ezaugarri arruntenak: txaranbeldua, zirkulu erdiko arkua, takeatuta, kapitelak, zutabeak, oinak... Dekorazio xumea izan arren, leiho polita da.

Getxoko erromanikoa oso ezezaguna da, baina aztarnarik egon badago. Ematen du lan batzuetan agertu zirela, eta eraikin berriari jarri zituztela. Kokapena ez da jatorrizkoa, baina egon zeneko isla ona da. Korupean leiho bat bermuntatu zuten. Kapitela oso politak dira, eta oso ondo kontserbatuta daude. Kanpotik, bermuntatuta dagoen leihoa islatzen da, iparraldean hain zuzen ere. Sakristian beste kapitela bat aurki dezakegu. Nahiko ezkutatuta daudenez, jende gutxi ezagutzen ditu.

Amaizteko, **Lemoizen** Urizaharreko Andra Mariko elizan multzo politena aurki dezakegu. Elementu isolatuz gain, leihoa eta atea aurki ditzakegu eliza polit horretan. Leihoaren dekorazioa ez da oso nabaria, atekoa, ordea, nire ustez, Uribe Kostako politena da. Ate hori ikus genezake Gaztelan, Araban edo Napor erreinuaren erdi-



Barrikako leiho erromanikoa

gunean (gaurko Nafarroa). Aldiz, erreinuaren bazter batean gaude, Lemoizen. Kapiteletan zaldi politaz gain, gotzainak, arranoak eta sugeak eszena bat osatzen dute. Primerako eszena horrek datu asko ematen digu, irakurtzen badakizkigu.

Merezi du txango bat egitea hirurak ikustera, informazio pixka batekin batik bat, hobeto ulertzeko bertan duguna.

Hiru leku horiek, bere aztarnek hain

zuzen ere, aro horietako herritarrez hitz egiten digute, tenplu erromanikoen aroaz: haien inguruko herri txikiez; haien gaudiaz; haien lur eta basoko lanaz; kristautasunaz, nahiz eta beste ustekeriak horiekin nahastuta egon... Gurekin konparatuz oso desberdinak... baina ez hainbeste, azken finean, gure auzokideak ziren, eta gure herrietan bizi ziren, edo... hobeto esanda, beraien herrietan bizi gara gu. ○

gu geu

Nor-nori... non?

UK aldizkariko 195. zenbaki hau esku artean hartzen duzunean, Udal eta Foru Hauteskundeak pasa barri egongo dira (hori espero dugu behintzat, banaketak huts egiten ez badu). Zuen bozkek edo hauteslekuetara egindako txikarra justifikatu edo justifikatu bakoak, Uribe Kostako Udaletako aulkien banaketa erabaki zuten. Batzuetan, alkatearen eserlekuan gizon edo emakume bera ikusten jarraituko dugu; besteetan agian ez. Baina guztietan, aldaketak izango dira. Ez dugu Rappelen boterea behar izan hori jakiteko; izan ere, joko kide barria sartu da norgehiagokan (hau idatzi eta hauteskundeak izan arte justiziaren izenean inork ezer egiten ez badu behintzat).

UKn ez dugu baloraziorik egingo; lantaldea osatzen dugunok gure iritzia badugu ere, ez dugu UKren izenean ezer esateko asmorik. Alde batetik, gaur eta hemen (agian bihar eta han bai) ez dugulako horretarako lekuri aurkitzen aldizkarian; bestetik, badakigulako Lamiakoko maskaradan, Getxoko Eskulangintza Azokan edo zenbaki honetan protagonista diren beste ekimenetan egongo denaren barri izatea gurago duzula. Eta gu beti, zugar pentsatzen...

UK-ko lantaldea



ROMA, 2011KO MARTZA

Ez da jausi...!

...eraitsi baizik. Azkenean bora dute Romoko Kultur Erxea, antzinako Santa Eugenia eskolako eraikina, Kultur Erxe barria egiteko. Aspaldi zaharkituta zegoen eraikina eta auzoko beharretara egokiturako Kultur Erxe beharrez dago. Orain hutsunea nabarmen izan da auzoko plazan, murrutxo batek markatuta. Umeen algarak entzuten dira kulunketan, baina jaietako zarata eta hotsa urte batzuez isilduko dira, txosna eta kontzertu gune jaietako bihotza beste lekuren batera aldatuko baitute lanak iraun bitartean. Auzoaren itxura barria ikusteko asko ixaron beharko al da? ○ / Argazkia: Asier Menteak

OLGETAN SOLAS

ERANDIO ELIZATEKO UDALA BIZKAIA

Guraso eta 6-12 urte bitarteko seme-alabentzat *

1. Meatzaria
Maiatzak 15

2. Arrantzaleak
Maiatzak 29

3. Artzainak
Ekainak 12

1gande goizetan
12:00 - 13:30
Irailaren 23a plazan
(ALTZAGA)

KIROL-JOLASAK

Argazkiak: KULKU kulturakiroia

KULKU KULTURAKIROIA

BFA DFB

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

* Familia bakoitzak talde bat osatuko du: gurasoetako bat, edo biak, eta seme-alabetakoa bat, edo bi (gehienez 4 kide)

IZEN EMATEA: igandeetan, bertan, jolasetan hasi baino lehen

Irailaren 23a plaza - euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128



Iraganez doa denbora* beti / AREETA ETORBIDEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kirol portutik ateratzear



2011ko apirila, Getxo

Testua: **Itxaso Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Norteko ferrokarrila

Transatlantiko denboraldia
Hasi zen apirilean,
Kirol portuak Marbella itxura
Hartu ohi duen hilean.
Atso guztiek jartzen dituzte
Sei laka bote ilean...
Hobeto nago txalupa bate(a)n
Portu zahar umilean.

Probatu gura nukkeen arren
Inoiz bizitza osoan,
Nahiago diot aurea hartu
Espaloiri pausoan;
Titanik filmaz oroitu eta
Ez nengoke eroso han
Izebergik ez badago ere
Atlantiar itsasoan.

Kirol portutik ateratzear
Dagoen itsasontzira
Dirurik gehien biltzen dutenak
Bakarrik igoko dira;
Besteok eman diezaigun
Atlantikoari bira
Irudimenez, aurreztuz eta
Argazki honi begira.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

plentzia > Kanadako Placentiaren jatorri, bien arteko lotura sendotuz



Unai Basurkok eroango du Plentziako bandera Ternuaraino

Baleak arrantzazera joan ziren euskaldunak Kanadara XVI. mendean. Plentziagaz antz handia zeukan zonalde bat topatu zuten Ternuan eta Placentia izena eman zioten. *Placentia, la Plentzia canadiense* liburuan jaso zuen Sabin Lauzirica merkataritza-nabigazio kapitainak historiaren pasarte hori. Ikerketa hartatik abiatuta Placentiako Udalgaz harremanetan jarri ziren. Herri bien arteko lotura indartu bidean, Placentiako bandera entregatu zioten maiatzean Plentziako alkateari. Orain kontrako norabidea egin behar du harremanak eta modu berezia aukeratu dute Plentziako bandera Ternuara eroateko. Unai Basurko nabigatzaileak antzinako euskal bale arrantzaleen biderei jarraituko dio lurralde hartaraino, Atlantiar Ozeanoa zeharkatuz. Banderagaz batera plaka bat emango dio Placentiako alkateari udan. Etorkizunean Plentzia bien arteko lotura sendotzen jarraitzeko ekimenak egiteko asmoa daukate. ◯

getxo > *ateak zabalik eguna* ospatu dugu Martikoenan



Martikoenako lokalak, maiatzaren 12an

Orain hil batzuk Udalak utzitako eraikinean lanean gabiltza herriko hainbat euskara elkarte, Martikoenan kalean. Azkenean, merezitako inaugurazioa egin genuen maiatzaren 12an. Ateak zabaldu genizkien elkarrekin kolaboratzaileei, eta orohar, euskararen lagunei. Lokal hauen erabilera oso garrantzitsua zaigu gure lana aurrera ateratzeko bertan gauden taldeoi. Horregatik, lantokia erakutsi gura izan diegu lagunei, danakaz konpartitu guztiok batera burutzen gabiltzan egitasmoen erraiak. Eskerrik asko egun hori gugaz partekatu duzuen guztiei. Baina hau ez da izan egun bateko kontua, Martikoenako atek zabalik egongo dira beti ALBE, Bizarra Lepoan, Egizu eta UK aldizkaria, lagun zein kolaboratzaileentzat, eta euskaltzale ororentzat; hementxe gaituztu, zure alboan. ◯

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

itsasoruntz > akordioa eta elkarrizketaren aldeko olatua 28an



info+: itsasoruntz.nireblog.com

Algortako Portu Zaharra hartuko dute ehunka surfarik maiatzaren 28an, “*akordioa eta elkarrizketaren alde*”. Itsasoruntz ekimenak antolatu eta bustitzera deitu du. Oraingoan 500 lagun busti gura dituzte eta “*prozesuaren aldeko olatua*” osatu. “*Alde anitzeko akordioa*” aldarrikatuko dute, “*Euskal Herri osoan eta euskal herritar guztientzat*”; baita “*eskubide zibil eta politikoen, eta eskubide indibidual eta kolektiboen errespetua eta bermea*” ere. Goizeko 11:00etan hasiko da ekitaldia. Unai Elorriagak ekarriko du mezua, eta beste hainbat lagunek parte hartuko du: Porrotx pailazoa Zukugaz jolasean hasi eta ondotik sartuko dira surfariak uretara. Jarraian izango da bertsoen txanda, Jone Uria, Arrate Illaro eta Jon Maiagaz. Gibel Urdiñek taldeak ipiniko du musika eta ez dira faltako txalapartariak, dantzak, zozketa, umeentzako tailerrak, mokadutxoa eta txosna. Zu ere harrapatuko zaitu olatuak? ○

literatura > ekainaren 3tik 5era egingo dute Larrabetzuko Literaturia



Emanaldiak eskainiko dituzte internetez: www.literaturia.org

Euskarazko literaturak eta jendeak bat egingo dute Larrabetzuko Literaturian, ekainaren 3tik 5era, beste behin ere. Kontzertuak eta errezitaldiak izango dira: Ruper Ordorika, Hudaltzainak, Anari, Mursego, Napòka Iria, Intxixu Lotien Banda, Miren Agur Meabe, Paddy Rekalde edota Mikel Etxaburu idazleak e.a. Bertso-trama, aurkezpenak zein hitzaldiak ere ikusi ahalko dira gaztetxea, plaza, eskola eta Anguleri aurrean, baina internet bidez ere zabalduko dituzte: www.literaturia.org. Bestalde, literatura euskaraz plazaratzen duten argitaletxeek herriko plazako karpapean ipiniko dituzte erakusleihoak. Baina txikiak ere izango dute lekua letren jain, Literaturiatxuan. Ipuin kontaketa, ipuin bertsoa edota trikitixa eskolakoen emanaldia prestatu dituzte eurentzat. ○

[erretratua]



“Txikitatik izan dudana ametsa da, beti izan dut ilusio hori”

Guillermo Verdejo > Gibraltarreko itsasartea, uger egiten

Kaxaloteak, petrolio-ontziak, orkaka, 300 metroko itsasontziak... Hamaika ‘animaliak’ zeharkatzen du egunero Tarifa eta Maroko arteko itsasartea. Apirilaren 24an, algortar bat gehitu zitzaion Gibraltarreko itsasartearen ohiko faunari. Guillermo Verdejo Gibraltarreko itsasartea uger egiten zeharkatu duen lehenengo getxoztarra bihurtu zen egun horretan: “*Txikitatik izan dudana ametsa da, beti izan dut ilusio hori. Azkenean helburua betetzea lortu dut*”. Igerilariak hiru ordu eta hamazazpi minutu behar izan zituen itsasartea gurutzatzeko, inoiz egin den 18. denborarik onena: “*Igerileku bat ez denez, denborarena erlatibo da. Izan ere, korronteak, haizea... hartu behar dira kontuan. Nire kasuan, ez nuen aldeko korronterik izan*”. Algortarrak aipatu duenez, 18 kilometroko distantzia luzeagoa egiten da korronteen eraginez: “*Marokora hurbildu ahala korrontea gero eta gogorragoa da eta uger egin arren badirudi ez duzula aurrera egiten*”. Ibilbide osoan zehar, hiru itsasontzi jarraiki izan zituen Verdejok, badaezpada. Baina ez ziren segika zituen lagun bakarrak: “*Hainbat izurde nigaz etorri zen uger egiten. Ikaragarria*”. Hiru ordu pasatxo eta gero, Marokoko lurra zapaldu zuen algortarrak: “*Heltzean, itsasartea pateraz gurutzatzen duten etorkinak izan nituen gogoan*”. Marokotik Tarifarako buelta, hori bai, itsasontziz egin zuen. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Antzokiko lanak badoaz aurrera

Uda akabuan hasi eta datorren urtean amaituko dira **3B faseko lanak**, ekipamenduak azalerako solairuak altxatzeko; **aparkalekuko plazak** eskatzeko epea **uztailaren 2ra arte** egongo da zabalik

3B faseko Getxo Antzoki eta Musika Eskolako eraikineko azaleko solairuak altxatzeko lanak uda akabuan hasiko dira. **Aparkalekuko zimenduak eta estalkia amaituko dituzte ekaina amaierarako eta Andres Cortina kalea zabalduko dute. Uztailaren 2ra arte auzokoek aukera izango dute aparkalekuak eskatzeko.**



Dagoeneko estali dute plazako aparkalekua

Aurreikuspenak betez gero, uda akabuan hasi eta datorren urtean amaituko dira Getxo Antzokiaren 3B fasearen barruko lanak. Horien barruan, ekipamendu barri bien (Antzokia eta Musika Eskola), azalerako solairuen egitura altxatuko dute. Hori baino lehen, San Nikolas plazako aparkalekuko eta Antzokiko sestra azpiko egitura amaituko dituzte hurrengo uda akaburako. Aparkalekuko zimenduak, egitura, estalkia, plazako zorua eta Getxo Antzokiko zimenduak amaituta daude dagoeneko. Bestalde, aurreikusita dago, ekain amaierarako Andres Cortina kalea barriro zabaltzea herritarrek erabili ahal izateko.

3B faseko lanak 3 milioi euro baino zertxobait gehiagotan esleitu dituzte, proiektuaren aurrekontuan jasotakoa baino %20 gutxiago. Horri esker ia 800.000 euro aurreztuko dira. Hala ere, diseinuan eta zuzendaritzan egindako aldaketek, 950.000 euroko gastu gehigarria ekarri dute. Aldaketa horiek, Musika Eskolaren eraikina Etxeandia Artzapezpikua kaleko 2.eko etxetik

aldentzea eta eraikineko altuera murriztea dira, besteak beste.

Apirilean esleitutako 3B fasea amaitu ostean, proiektuaren azken faseari ekingo zaio, eraikinen barruko eta kanpoko aldeak amaituz. Horiek 2012ko udab-

«Uztailaren 2ra arte egongo da zabalik aparkalekuko 99 lekuak eskatzeko epea»

rrian hasi eta 2013ko neguan amaitzea dago aurreikusita.

Aparkalekuko 99 lekuei dagokionez, uztailaren 2ra arte egongo da zabalik horiek eskatzeko epea. 23.081 (50 urtera) eta 17.021 (25 urtera) eurokoa izango da plaza bakoitzagatik ordaindu beharreko kanona. Adinez nagusiak diren,

Getxon erroldatuta dauden, eta Basagoiti Etorbidean, M^a Cristinan, Alangon, Alangobarrin, Villaondoetan, Gaztelugatzen, Bidezabalen eta Arrigunagan ohiko etxebizitza dutenek eskatu ahal izango dituzte lekuak. Ibilgailuen titular bakoitzeko aparkaleku bakarra eskatu ahal izango da hasieran. Mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzako lau aparkalekuak eskatu gura dituztenek, "Pertsona minusbaliatuentzako aparkaleku-txartela" aurkeztu beharko dute. Eskaera kopurua aparkalekuena baino handiagoa bada, zozketa egingo dute.

Eskaerak, Hiritarren Arretarako hiru bulegoetan eta Udaletxean egin ahal izango dira. Beharreko informazioa, aipatutako bulegoetan, Ondare Sailean eta Udal web gunean daude. ○

Info+: www.getxo.net

Eskulanak eta liburuak

Eskulangintza eta 2. eskuko liburu azokak



90 artisauro batuko dira Eskulangintza Azokan

Algortan zein Areetan, irakurzale, gozozale zein eskulan zaleentzat. Azoka garrantzitsu bi izango dira datozen asteotan Getxon.

Lehen, maiatzaren 27, 28 eta 29an Areetako Geltokia plazan ikusi, dastatu eta gozatu ahal izango den XXVIII. Eskulangintza Azoka. 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik; zapatuan 21:30 arte. Ez da sarrerarik behar eskulan tradizionalaren erakusleho izango diren 90 adituen lanak ikusi ahal izateko. Hainbat diziplina landuko dira eta produktuak erostez gain, zuzeneko erakustaldiak ikusteko aukera emango dute. Teknikak eta prozedura tradizionalak erakutsiko dizkiete bisitariei: larrugintza, ehoziri-lanak, zizelketa, joskintza, margolaritza e.a.

Ibaiondo kaleak Eremu Gastronomico hartuko du eta, besteak beste, gozogintzari, okintzari, esnekiei eta gozoi zuzendutako hamabost postu inguru izango dira. Azokan zehar, stand eta diseinu lehiaketak eta erosleentzako artisauro produktu lote zozketak egingo dira.

Bestalde, ekainaren 2tik 5era, Algortako Geltokia plazak VI. Bigarren Eskuko Liburu Azoka Solidarioa hartuko du. Horretan, Kultur Etxeari dohaintzan emandako bigarren eskuko liburuak erosi ahal izango dira. Bertan batutako dirua, elkartasun proiektu bati emango zaio. Honetan ere, sarrera doakoa izango da. Goizez 11:00etatik 14:00etara eta arrastiz 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik azoka. ○

113.000 EURO EUSKARA SUSTATZEKO 2011N

Danera, 113.000 euro bideratuko ditu Getxoko Udalak 2011n euskara sustatzeko politiketarako. Jarduera hori Euskara Biziberritzeko II. Plan Nagusiaren barruan kokatzen da. Diru kopuru horretatik 108.000 euro euskara ikasteko eta euskara sustatzeko herritarrei eman beharreko diru-laguntzetarako izango dira eta gainontzekoa enpresentzat. Eskaerak urte osoan aurkeztu ahal izango dira eta dirua, besteak beste, aisialdi elkarteetako begiraleei, UEUko ikastaroetara joan gura dutenei edota familia giroan euskara sustatu gura dutenei emango zaie.

Info+: 94 466 00 11


UMEENTZAKO JOLAS LEKUA BIOTZ ALAIN

Maiatzaren 13an zabaldu zuten Algortako Biotz Alai Abesbatzaren plazako umeentzako jolas lekua. Jarduera horregaz amaitutzat ematen dira plazaren birmoldaketa lanak. Segurtasun-zorua barne, desmontagarria den jostailu-sorta jarri dute. Sei urte arteko umeek erabili ahal izango dituzte hiru jostailu modularrak. Txikien garapen psikomotorreari laguntzeko eta ezintasuna duten adin txikiokoei erabiltzeko prestatuta daude aparatuek. Guztira, 30.000 euroko aurrekontua izan dute.

PLAZARI IRADOKIZUNAK EGITEKO AUKERA

Apirileko udalbatzan Areea-Romoko Geltoki plazak eta ondoko aparkalekuak eta jolaslekuak osatzen duten multzoa eraldatzeko proiektua idatzi eta obra zuzentzeko espedienteak zabaltzeko proposamena onartu zuten. Ondoren lehiaketa egin eta aurkeztutako proposamenetan danetik bost aukeratuko ditu udal ordezkariak zein merkatari eta ostalariak osatutako aditu batzordeak. Orduan, prozesua herritarrei zabalduko zaie eta bost proposamenen inguruko euren iritzia eman ahal izango dute. Euren zein herritarren balorazioak, batzordeak txostenak idatziko ditu. Azken erabakia Udalarena izango da.

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Alvaro Heras > *Getxo Sound-Getxoko Soinua* disko-liburuaren egilea

“Rock taldeak beti egon dira, maila handikoak gainera”



Alvaro Heras, disko-liburuaren egilea

Alvaro Heras (Algorta, 1972) estuki lotuta egon da Getxoko musika mugimenduari gaztetatik. Bonzos eta The Painkillers taldeetako kide izateaz gain, pop-rock mugimenduaren jarraitzaile sutua da. Bizitzan zehar batutako materialagaz eta Getxoko 44 talderi egindako elkarrizketakaz, Getxo Sound-Getxoko Soinua disko-liburua argitaratu du Kultur Etxearen laguntzagaz. 60ko hamarkadatik 2010. urtera arteko Getxoko rock mugimenduaren parte handia batu du Herasek. Kultur Etxe, liburutegi eta artxibategietan kontsultatu ahal izango da liburua.

—Zergatik hasi zinen liburua osatzen? Kanpotik heldu zitzaizun proposamena ala zurea izan zen ideia?

—Nire aurreko liburuaren bigarren edizioa kaleratu nuenean, plazaratu beharreko informazio asko nuela ikusi nuen. Horretarako gogoz nengoan. Getxokoa da ezagutzen dudana eszena nagusia eta banekien Kultur Etxea herriko rockagaz harremana duen guztiagaz lan egiteko prest egon ohi dela. Horregatik, ideia aurkeztea erabaki nuen. Nire harridurarako (krisiaren kontuagaz Udal askok murriz-

ketak egin dituzte kultura arloan), interes handia erakutsi zuten. Liburua elkarlanean fruitu da.

—Zer aurkituko dugu Getxo Sound-Getxoko Soinuak disko-liburuan?

—Argazkiz, kontzertu sarrerez eta karteletan betetako 45 orrialde; horietan 60ko hamarkadatik 2010. urtera arteko rock getxoztarraren historia deskribatzen da. Liburuagaz batera disko bi daude, 44 talderen 44 abestigaz; irakurri bitartean musika entzuteko aukera dago.

—Zelako harremana izan duzu taldeakaz?

—Gehienak ezagunak nituen eta gainontzekoakaz telefonoz edo e-postaz egin dut harremana.

—Talderen baten beharra azpimarratuko zenuke?

—Diskoetan agertzen diren taldeen artean, Tulsa, Iñigo Coppel, Gringo, Rubia, Smile eta Fakeband ditut gogokoak; horiek gaur egun zuzenean ikusi daitezkeen taldeak dira.

«Gwendolyne itxi zutenetik, ez dago kontzertuak antolatzen aretorik»

—Liburuaren aurkezpenean, azken urteotan berpiztea eman dela esan zenuen.

—Taldeak beti egon dira, maila handikoak gainera. Berpiztu dena Udalak Kultur Etxearen bitartez herriko eszena indartzeko duen jarrera da, 90eko hamarkadan egin zenera bueltatuz. Getxoko kultur ondarearen parte hori zaindu behar dela jabetu dira.

—Getxo Sound mugimenduaren barruan ez dago ia talde euskaldunik. Zergatik uste duzu dela?

—Ez daukat ideiarik ere, baina egia da Getxoko talde euskaldunen kopurua Bilbokoaren antzekoa dela. Ziur asko, eta hau esatea gogorra ematen badu ere, euskarak gizartean duen lekuagaz lotuta dago hori.

—Zelan ikusten duzu gaur egungo Getxoko musika panorama?

—Taldee dagokien oso ondo dago. Hala ere, gabezi handia dago: ez dago kontzertuak antolatzen aretorik orain 11 urte. Sinestezina badirudi ere, Udalak Gwendolyne aretoa itxi zuenetik, 2000. urteko udatik, ez dago zuzenean rock emanaldiak antolatzen gunerik. ○

Info+: historiarockbilbao@gmail.com

Koadrilak 3, 2, 1... prest!

Koadrila Eguna ospatuko dute romotarrek ekainaren 4an, Santa Eugenia plazan



Aurreko urteko Koadrila Eguneko bazkaria. UKBERRI.NET agerkariak utzitako argazkia

Handiagoak zein txikiagoak; neskaz zein mutilez osatuak. Batzuetan mistoak. Romon asko dira lagun koadrilak eta beste behin ere euren omenez egindako egun handia ospatuko dute. Aurten ekainaren 4a aukeratu dute horretarako eta obrak hasita badaude ere, Santa Eugenia plazan lekutxo egingo dute espero dituzten 200 pertsonentzat.

Pinueta eta Erromoko Jai Batzordeak antolatzen duen koadrilen egun handiak arrakasta izugarria izan zuen joan den urtean; inguruko herrietako neska-mutillak ere hurbildu ziren, antolatzaileek esandakoaren arabera. Aurten, lagunena

bat faltan izango badute ere, koadrilakide asko espero dituzte. Ospakizuna 12:00etan hasiko da txupin jaurtiketa eta hamabitakoagaz. Ondoren poteo musikatua egingo dute. 15:00etan indabak protagonista izango ez dituen bazkarian energia hartu ahal izango dute koadrilakideek. 17:30ean talde argazki herrikoia egin eta ondoren koadrilen arteko jolasak hasiko dira. Egunari amaiera emateko, kalejira musikatua egongo da 20:00etatik aurrera. Koadrilen arteko lan-banaketa egiteko, maiatzaren 30ean bilera irekia egingo dute Kultur Etxe barrian. ○

Info+: erromokojaibatzerdea@gmail.com

DISEINATZAILE GRAFIKOEN TOPAKETAK

Ekainaren 3an Serifalaris diseinatzaile grafikoaren topaketak egingo dituzte Areetako San Joseren Jauregian. Bertan, izena ematen duten diseinatzaile grafiko edo zale guztiek parte hartu ahal izango dute. Egundako topaketak izango dira; goizeko 9:30etatik 14:30etara, hainbat adituren hitzaldiak entzun ahal izango dira. Arratsalderako aldiz, tailerrak antolatu dituzte. La mosca kolektiboa eta Andres Balius diseinatzaileak parte hartuko dute, besteak beste. Ritxi Ostariz, Eider Corral eta Diego Rey diseinatzaile euskaldunek euren tartea hartuko dute goizeko azken orduan. Sarrerak web gunean eskuratu daitezke.

Info+: www.serifalaris.com

KULTUR ETXEKO BULETINA E-POSTAN

Getxoko Kultur Etxeak udalerriko kultur jardueri buruzko buletin elektronikoa jarri zuen martxan maiatza hasieran. Horren bitartez, Kultur Etxeak antolatzen dituen ekintzak e-postan jasotzeko aukera izango dute alta ematen dutenek. Buletin elektronikoa jasotzeko, Udalaren web gunean eman behar da izena. www.getxo.net/boletinesgk loturan sartu eta bertan dagoen on-line formularioa bete besterik ez da behar.

NU TEATRE TALDEA MAIATZAREN 29AN

Maiatzaren 29an Nu teatre taldeak euskarazko Aitona Matias haur antzerkia ekarriko du Areetako Andres Isasi Musika Eskolara, arrastiko 18:00etan. Matias, Maiaren aita ez da bere izenagaz gogoratzen. Apurka memoria galtzen ari da. Hala ere, ilobak ez du etsitzen, eta oroitzapenetatik egindako bidaien bidez, laguntzeko zer egin dezakeen jakiten saiatuko da. Bi pertsonaien bidez, Nu Teatre-k oroitzeko beharra, ikasteko nahia eta sortzeko gaitasuna erakutsiko digu. Sarrerak 4 euroren truke eskura daitezke eta salgai daude daborduko.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Piter Blanco eta Karmele Fernandez > Herrigune proiektuko partaideak

“Orain arte soilik eskola arduratu da umeen heziketaz, baina eredu hori krisian dago”

Kalera atera zen maiatzaren 7an Zilborhestea-Haurrak Laguntzeko Sarea. Herrigune proiektuaren barnean dago eta egitasmo honen barri eman digute bertako partaide Piter Blancok eta Karmele Fernandezek.

—Zilborhestea eta Herrigune, zer dira?
—Zilborhestea Herriguneraren barnean kokatzen da. Herrigune da herri mailako hezkuntza proiektu bat. Hamar urte daroagu lanean eta ideia da herri edo komunitate hezitzailea garatzea; heziketan herri osoak batera lan egitea da asmoa. Orain arte soilik eskola arduratu da umeen heziketaz, baina eredu hori krisian dagoela argi dago eta eskoletako hormak apurtu behar ditugu eta kaleratu. Urteotan harremanetan ipini gara merkataria, guraso, ume, gazte, Udal teknikari, politikari, ikastetxe eta irakasleak ekimenak elkarregaz egiteko. Herrigune barruan badago hainbat proiektu, indartsuena da Zilborhestea. Umeak gero eta gutxiago dabilta kalean, eta daudenean, leku itxietan egoten dira. Bestalde, Herrigune proiektua garatzean hainbat kontzeptu ipini genuen, umea herriko parametro bihurtzea izan zen bat. Hau da, herria umeentzako proposa bada,



Maiatzaren 28an Kontsumo Iraunkorraren Azoka egingo dute Euskal Etxeen plazan

guztiontzako proposa izango da. Umeak kalean egon daitezkeen sarea osatzeari ekin genion orduan.

—Kale Ekintza bat egin zenuten maiatzaren 7an.

—Urtero egin ohi dugu. Herriari informazioa emateko eta kalea guztiona dela aldarrikatzeko. Errepidea ebakitzen dugu, jolasak egiten ditugu, nagusi zein txiki ateratzen gara kalera.

—Gainera, hilaren 28an Kontsumo

Iraunkorraren Azoka duzue, ezta?

—Aste Berdearen barne antolatzen dugu ekintza hori, Euskal Etxeen plazan. Bestalde, ekainaren 4an eta 5ean kanpaldia egingo dugu Ondizen. Familien arteko topagunea da, jasagarria. Aurten, hazkuntzari buruz hitz egiteko topagune bat egingo dugu kanpaldiaren baitan. Informazioa gura duenak 944 029 780 telefonora deituz edo www.herrigune.org gunean eskuratuko du. ○

Lamiakon bada giro!

Auzoko jaiak eta Maskarada ospatuko dituzte maiatzeko **azken asteburuan**



Barikua 27an arrastiz eta gauez izango da Lamiako Maskarada

Udako solstizioa egun berezia da Leioan, baina aurrekari garrantzitsua izan ohi du Lamiako auzoan, etortzeaz dagoenaren atari. Maiatzeko azken barikuan ospatzen da Maskarada eta azken asteburuan Lamiakoko jaiak. Aurten ere bat egingo dute biek, hilaren 27an izango da Maskarada, eta 27tik 29ra jaiak. Igor Pascual dantzariak esango du pregoia aurten.

Esan daiteke Maskaradak zabalduko dituela jaiak, arrastiko 17:30ean hasiko baita lehen zatia Gaztelubiden. Bigarrena jarraian izango da txosna ondoan, 18:30ean, eta gaueko 22:30ean azkena, eliza ondoan. Prudentzia lamiakaz joango da, suak argituko du gau beltza eta

musikak ipiniko ditu dantzan izarrak, auzoko kondaira berreskuraturaz.

Ordutik aurrera dena izango da irria eta jai langile auzoan. Barikuan erromeria eskainiko du Moby Dick taldeak, gauerdetik aurrera, eta atsedendian egingo dute Irrintzi Txapelketa.

Zapatuan eta domekan gelditzeko betarik ez da izango: zapatuan puzgarriak, igel, paella, mus, tiragoma edota moztorro lehiaketak, Batukada eta kontzertua izango dira Baketazo eta Galker taldeakaz. Biharamunean, domekan, dantza alardea, herri kirol erakusketa, *play back*, guatekea, txokolate-jana eta traka. Aitzakia gehiago behar duzu Lamiakora hurreratzeko? ○

UDA PROGRAMAN BEGIRALE IZAN GURA?

Herriko umeentzako oporretarako programa da UDA. Uztailean izaten da eta egunero hamaika ekimenegaz gozatzeko aukera daukate txikiak. Begirale gisa lan egin gura duenak eskaera aurkeztu behar du Sakoneta kiroldegiko atezaintzan, maiatzaren 31 baino lehen, eta 09:00etatik 21:00etara.

AZOKAN EUSKARARIK EZA SALATU DUTE

Umore Azoka egin zuten maiatzaren 12tik 15era Leioan. Berbalamiñe Euskara Taldeak dioenez, 51 antzerkitik 2 bakarrik izan ziren euskaraz. “Udalak duen Euskara politika hutsaren hurrena” dela eta “herritarren diruz baliatuta, euskaraz aritzeko eta bizitzeko eskubidea ukatzen” duela salatu du taldeak.

ERAKUSKETA KULTUR LEIOAN: LA CODORNIZ

Umore grafikoa: La Codorniz, 70 urte erakusketa bisita daiteke Kultur Leioan ekainaren 26 arte. XX. mendeko Espainiako umore aldizkari garrantzitsuenetakoa izan zen La Codorniz (1941-1978). Hiru ikuspuntu nagusi dira erakusketan: bere umorismo espezifikoa, sortu zen jendarteari dagokiona eta zentsuraren aurrean erakutsitako tolerantzia faltari dagokiona, heriotzera eroango zuena.

INSTITUTUA HANDITUKO DUTE, BAINA EZ ONDIZEN

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza sailak Barandiaran Goikoa eta Bekoa institutuak batzea erabaki du, unibertsitate gertu dagoen eraikinak handituz. Leioako Udalak Ondizen egin gura zuen eraikin barria, baina Hezkuntzak unibertsitate alboko eraikinak baliatzea erabaki du, “irizpide ekonomikoak direla eta”. Dena dela, lanik ez dute abiatuko 2014 arte. Ondoren, Sakoneta ikastetxea eraitsiko dute.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Carrefour

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta erite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarrizte, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Henar Pascual Villanueva > Voxabora enpresako kidea

“Pertsona gorrak eta Gor-Erandio egitasmoan lagundu gura dutenak erakartzen saiatzen gabiltza”

Gor-Erandio egitasmoa abiatu du Udalak, entzumen urritasuna duten lagunen bizitza eta zerbitzu-kalitatea hobetzeko herrian. Voxabora enpresagaz alkarlanean garatuko dute proiektua, Henar dugu bertako kide.

—Zertan datza egitasmoa?

—Hainbat helburu dauka proiektuak: Udalak gortasunaren ikuspuntua txertatzea eguneroko politikan; Udalaren produktuek eta zerbitzuek pertsona gorren beharrei benetan erantzutea; horien kudeaketak erakundearen plan estrategikoen kalitate, eraginkortasun eta integrazio irizpideak bete ditzala; aukera eta bitarteko berberak ematea pertsona gorrei eta gainontzekoei; eta kasu zehatzetan, diskriminazio positiborako neurriak ezartzea zenbait pertsona gorrek pairatzen duen bazterketa soziala neurri batean erreparatzeko. Helburuok lortzeko bost fase ditu egitasmoak. Apurka aurreratu edota helburuak eta bitartekoak egokitzea ahalbidetzen du, inplikaturik dauden eskaeren arabera. Hori dela eta, Erandioko Udalak lehenengo fase biakaz besterik ez du hartu konpromisoa.

—Zeintzuk dira fase horiek?



Pertsona gorren bizitza-kalitatea hobetzeko Euskadiko lehen egitasmoa da Gor-Erandio

—Sentsibilizazioa eta mobilizazioa, beharren ikerketa, eragiteko proposamen bilketa, Udal Ekintza Planaren diseinua eta Plan hori abiatu eta zabaltea dira bost faseak. Lehenengoan murgilduta gaude. Pertsona gorrak eta hurrengo faseetan lagundu gura duten erakunde zein profesionalak erakartzen saiatzen gabiltza.

—Antzeko egitasmorik garatu duzue?

—Ez, Euskadin gisako lehen egitasmoa da, txalogarria da Erandioko Udalaren

apustua. Udal batzuek irisgarritasun planak aurkeztu dituzte, baina pertsona gorrei dagokienez, huts asko daukate. Hainbat iniziatiba ere izan da, baina gehienbat zerbitzu publiko zehatz bat adaptatu edo formazio zein sentsibilizazio ekimenak garatzeari begira, osotasunik eta jarraikortasun barik.

—Zein da Voxaboraren zeregina?

—Enpresa bat da, profesional independentea naiz. Hiru pertsona gorrek osatzen dugu Voxaborako lan-taldea. ○

Juanena urbanizatuko dute Urteetako eskaeraren ostean **uztailean hasiko dira lanak** Astrabuduko Juanena plazan



Aparkaleku gisa erabiltzen dute auzokideek plaza orain

Azkenean hasiko dira lanak Astrabudua auzoko Juanena plaza urbanizatzeko, uztailean, eta sei hilabetez luzatuko dira. Gaur egun aparkaleku bezala erabiltzen dute astrabuduarrek, baina ordenarik barik. Lanen ostean, oinezkoentzako izango da eraikin altuen arteko gunea.

Enpresa eraikitzaileari dagokionez, 18k aurkeztu dute proiektua lehiaketa publikoan. Aste batzuk barru erabakiko dute nori esleitu proiektua. Aurrekontu eskaintza 602.576 eurokoa da.

Juanena urbanizatzeko auzotarren eskaera aspaldikoa da. Udalak inkesta bat egin zuen plazan zer egin erabakitzeko,

oinekoentzako gunea moduan atondu edo aparkalekua egin. 143 pertsonak bozkatu zuen eta emaitza argigarria izan zen: 113 lagun plaza oinezkoentzako ipintzearen alde ziren, 28, barriz, aparkalekua- ren alde.

Beraz, auzotarrek gozatzeko eremu bilakatuko da Juanena, aisiarako gunea. Ibilgailurik ezingo da igaro plazara, larrialdietakoak izan ezik. Horretarako, Ollaga kaletik prestatuko dute sarrera eta San Lorenzo kaletik irteera. Umeentzako jolasgunea, eserlekuak, zakarrontziak, argiztapena eta zoladuraz hornituko dute Juanena, astrabuduarren gusturako. ○

NOVIEMBRE KULTURALA LAGUNTZAREN PREMIA

Hamar urte beteko ditu aurten Noviembre Kulturalak. Tirante Plataformak urtero ospatzen du antzerki jaialdia Lutxanako eskolan. Aurten ilusio bereziaz hasi dira jaialdia prestatzen, baina kinka larrian daude orain, izan ere, Udalak %55,26 murriztu die diru-laguntza. Gauzak horrela, laguntza eskatu du Plataformak, bai jaialdirako proposamenei dagokienez, bai mobilizazioei dagokienez. Guztien laguntza behariko dute merezitako X. urteurrena ospatzeko.

www.plataformatirante.com

MUSIKA ESKOLAN MATRIKULATZEA DAGO

2011-2012 ikasturterako matrikulazioa hasi da Musika Eskolan. Ikasle direnak matrikulatu dira dagoeneko, baina ikasle barriak garaz dabilta izena emateko, ekainean egin behar dute. Musika Eskolara bertaratu daitezke, baina informazio gehiago behar badute 944710776 telefonora dei dezakete edota meskola@erandioko-udala.net helbidera mezua bidali.

ATEGORRIN GIMNASIOA UDAZKENERAKO

Ategorri institutuan gimnasioa egingo dute udazkenerako, izan ere, dagoeneko lanak esleitu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak. Construcciones y Reparaciones Montegui S.L. enpresak eraikiko du eta 400.000 euro inbertituko da. Sei hilabete inguru iraungo dute lanek. Arkupea guztiz estaliko dute pabilioi bat egiteko, bertan kokatuko da gimnasioa. Gainera, aldagelak, dutxak eta komunak ere egingo dituzte. Pabilioiaren ondoko eraikin bat egingo dute horretarako eta zuzenean sartu ahalko da bertatik gimnasiora. Gainera, ikastetxe barrua ere barrituko dute, behar barriei egokitzeko. Azkenik, Jado Fundazioa ikastetxetik banatzeko hesia ere aldatuko dute.

Uuribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

IGOGAILUAK

ARLAN
ASCENSORES

bai **E.C.A.**

Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

KOADRILEK BAT EGINGO DUTE EKAINAREN 4AN

Sopelako koadrilek elkar ezagutzeko aukera izango dute ekainaren 4an. Aurtengo Koadrila Egunak ohiko formatua izango du. Goizean martxa egingo dute gazteek, eguerdiko gazte-bazkarirako gose izateko. Bazkalostean koadrilen arteko jolasak izango dira, eta ondoren kalejira herrian zehar. Egunari txapela jartzeko, poteo-batukada antolatu dute. Animatu eta ondo pasala!

MUSIKAZ BLAI ETA UDAL UDALEKUETAN IZEN-EMATEA

Uda hasi eta umeak udalekuetara bidaltzeko gogoak? Sopelan zabalik daude udaleku irekietarako eta Musikaz Blai programarako izen-emateak. Epea maiatzaren 31n amaituko da, eta matrikula arrunta 80 eurokoa izango da. Bigarren eta hurrengo neba-arrebetzat prezioak merketuko dira.

Info+: www.sopelana.net

GOAZEN SURF EGITEN IKASTERA EUSKARAZ!

Peña Txuri Surf Eskola eta Aitxul Euskara Taldeak, 'Surfa euskaraz gozatu!' egitasmoa abian jarri dute aurten ere, Sopelako Udalaren laguntzagaz. Iberre ikastetxetik, Zipiriñe eskolatik eta Ander Deuna ikastolatik 120 lagunek eman du izena. Ikastaroetan surf eta bodyboard egiten irakatsiko dute.

SOLAGAISTUA POLITIKARI HISTORIKOA ZENDU DA

Maiatzaren 9an Valentin Solagaistua PSE-EEko Sopelako zinegotzia zendu zen bere etxean, 74 urteagaz. Algortan 1937. urtean jaioa, Solagaistua Venezuelan errefuxiatua egon zen Frankismoan. Trantsizioan, EAE-ANVko idazkari nagusia izan zen. 80. hamarkadan, Euskadiko Alderdi Komunistako kide izan zen, Ezker Batuaren barruan. Azkenik, PSEra igaro eta zinegotzi izan da Sopelan 2007. urtetik.

Merkatua eta topagunea Jauregizar plazan eraikiko duten aterpean nekazaritza azoka egongo da asteen birritan



Baserritarrek ez dute ordaindu beharko euren postua jartzeko

Uribe Kostako lehen merkatua sortuko da irailetik aurrera Sopelako Jauregizar plazan. Udalak merkatua hartuko duen aterpearen lanak hasi ditu, eta obrak hiru hilabetez luzatuko dira. Eraikin barriak 373 metro koadroko zabalera izango du eta Euskaltegiaren alboan kokatuko da. Lanen aurrekontua 225.607 eurokoa izango da, udal iturriek baieztatu dutenez, eta aterpean hainbat jarduera antolatuko da: kaleantzerkiak, kontzertuak, azokak, umeentzako emanaldiak...

Baina baserritarren merkatua izango

da, zalantzarik barik, Jauregizar plazak hartuko duen ekimen nagusi eta barritzaileena. Asteen birritan, Sopelako eta inguruko baserritarrek euren produktuak saltzeko aukera izango dute plazan, eskualdeko lehenengo merkatu erregularra sortuz. Uribe Kostako Mankomunitatea hamabost bat baserritarrengaz jarri da kontaktuan, eta nekazariak euren postua musutruk jartzeko eskubidea izango dute. Sopeloztarrek solotik zuzenean datozen produktuak erosteko aukera izango dute, inolako bitartekaririk barik. ○

Mikel Begoña > *Tristísima ceniza* komiki-liburuaren gidolaria

“Dibulgazioaren aldetik, komikien bidez historia kontatzea erakargarriagoa da”



Robert Capa argazkilaria Bilbon egon zenekoa da liburuaren hari nagusia

Bere bigarren komiki liburua kaleratu barri du Mikel Begoña gidolari sopeloztarrek. *Tristísima ceniza* izenburuagaz, liburuak Sollubeko batailaren nondik norakoak kontatzen ditu, Iñaket bilbotarrak egindako irudien bidez.

—Zer aurki dezakegu *Tristísima ceniza* liburuan?

—Hari nagusia 36ko gerran Robert Capa argazkilaria ezaguna Bilbon egon zenekoa da. Sollubeko batailaren inguruan liburua kaleratzeko interesa nuen, eta Robert Caparen istorioa argitaletxentzat amu baten modukoa izan da, interesa sortzeko.

—Garai horretako beste istorio batzuk ere agertzen dira liburuan.

—Bai, nik maila berean jartzen ditut Capa eta besteon istorioak. Besteon istorioak, gainera, ez badira jasotzen galdu egiten dira. Paperean jasota dauden idatzietan oinarritu naiz: Artasánchez izeneko milizianoaren biografian, Barandiaranek egindako elkarrizketak...

—Eskualdeko istorioen bat agertzen da?

—Uribe Kosta baino Sollube eta Butriko gaztelua agertzen dira, gartzela legez erabili zutelako.

—Ez gaude ohituta historia komikietan irakurtzera. Zer dela eta erabaki zenuen formatu hori erabiltzea?

—Dibulgazioaren aldetik askoz ere erakargarriagoa da historia komiki bidez kontatzea eta ez liburu klasiko formatuan. Euskal Herrian ez horrenbeste, bai-

«Argitaletxeak idazteko askatasuna ematen dit, hori da garrantzitsua»

na Frantzia, Belgika eta beste herrialde batzuetan oso arrunta da helduek ere komikiak irakurtzea.

—Beste proiektuen bat duzu buruan? —Norma argitaletxeagaz beste proiektu bat egingo dugu Iñaketek eta biok. Idazteko askatasuna ematen didate, eta hori da niretzat garrantzitsua. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

LANTZARTEKO LANDA SALDU DU UDALBATZAK

Maiatzaren 12an Lantzarteko landa behin-behinean saltzea adostu zuten EAJk eta PSE-EEk. Berangoko Udalak 4 milioi euro eskuratuko ditu landa Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegiturak sozietateari saltzeagatik. Horrela, Lantzarten "gazteentzako" 80 etxebizitza tasatu eraikiko dituzte. Ez-ohiko udalbatzan hainbat auzokide izan ziren hartutako erabakia salatzeko eta landaren erabilera publikoa aldarrikatzeko. Izan ere, eztabaida izan da Berangon azken urteotan zelaiaren etorkizuna dela eta. PP, EB eta EA proiektuaren aurka agertu ziren.

GAZTEGUNA ZABALDUKO DU UDALAK

18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat lokala zabaltzeko asmoa iragarri du Berangoko Udalak. 50 metro koadroko aretoak telebista, wi-fi konexioa eta guztiz hornitutako sukaldea izango du. Lokal barrian zer-nolako zerbitzuak gura dituzten galdetu die Udalak herriko gazteei: plasma pantaila, play-stationa, irakurketa gunea, bidaiak antolatzeko gunea, dirulaguntzei buruzko informazioa... Parte-hartzeagatik, asteburuko egonaldia zozketatu eta Berangoko diskoteka ezagun batera joateko sarrerak oparitu ditu Udalak. Gaztegunerako logotipo lehiaketa ere antolatu dute, eta txapeldunak 500 euroko saria eskuratuko du. Orain arte, 13 eta 18 urteko urte bitarteko gazteentzat aisialdi eskaintza egon da, Gaztelekuan.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Mahastitik plazara

Ekainaren 5ean XI. Txakolin eguna antolatu dute; lau euroren truke gura duzun beste!



Eguerdiko 12:00etan hasiko da jai, Sabino Arana kalean

Bakiokoa ez ezik, Uribe Kostako txakolina ere kalitatezkoa dela argi uzten dute Berangon urtero. Ekainaren 5ean XI. Txakolin Eguna antolatu dute txakolingile berangoztarrek eta galdu ezinezko hitzordu bihurtu da herrian. Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaitxoa, Sabino Arana kale inguruan (Nagusien Etxearen aurrean). Bertan izango dira herriko 22 txakolingileak. Aipatu dute-nez, aurtengo uzta ona izan da, eta urtez urte bere osasuna hobetuz doala baieztatu dute.


Ohi bezala, txakolina dastatu gura

duenak kopa erosi beharko du, lau euroren truke. Kopagaz, postu guztietan txakolinaz gozatzeko aukera izango du, eta kopa etxera eroan ahal izango du oroigarri gisa. Gainera, txitxiburduntzi eta lukainka pintxoak ere egongo dira goseari aurre egiteko.

Eguna girotzeko, kale-animazioa izango da txistularien eta trikitilarien eskutik. Postuak eguerdiko 15:00ak aldera itxiko dituzte. Txakolingile berangoztarrek aitortu diguten bezala, giro jator eta alaia guztiz bermatuta dago, beraz ez dago aitzakiarik eta erdu! ○

Patxi Soriano Muguruza > Arkitektoa

“Hilerriaren arkitekturak sinbolo erlijiosorik ez izatea zaindu dugu”



Hilerria publikoa izango da eta nitxoak 10 bat urtez erabiltzeko aukera egongo da

Ez-ohikoa izango da urte akabuan atek irekiko dituen Urdulizko hilerri barria. Patxi Soriano arkitekto bilbotarrak gidatuta, Atxarteko harrobi zaharkituan Euskal Herrian parekorik ez duen kanposantua eraiki dute.

—**Hilerri berezia izango da Urdulizkoa, zer dela eta?**

—Hasteko, lekua bera berezia da: Atxarteko harrobia. Udalak proposatu zidan eta primeran iruditu zitzaidan. Zulo bat zen, zaborrez betetako harrobi zaharra. Baina naturaz inguratuta zegoen eta ez zegoen arkitekturaren erreferentziarik. Hutsik zegoen espazioa zen, ia ia kosmikoa.

—**Nitxoak jartzeko modua ere ez da oso arrunta.**

—Harrobiaren geografia espazioa bera izatea gura genuen. Hilerri mediterraneotian nitxoak lerrotan jartzen dira; guk geometria oso sinplea duten 20 kubo

egin ditugu. 320 nitxo hartuko dituzte, eta orden barik banatu ditugu. Hori hilerriaren ezaugarri berezia da: hierarkiak ezabatu ditugu, ez da lehen edo bigarren mailako ehorketarik egongo, nitxo guztiek espazio bera dute. Ez dago panteoirik. Bestalde, hilerriak eraikin bat izango du: argiztapen zenitala izango

«**Hierarkiak kendu ditugu, ez da bigarren mailako ehorketarik egongo**»

du, linterna baten antzekoa, eta kupula baten barruan gaudela irudituko zaigu. Harrobitik ateratako harriakaz eraikita dago.

—**Erljioak tarterik izango du bertan?**

—Bakoitzak bere hilarrian gura dituen sinboloak jartzeko aukera izango du, baina arkitekturak sinbolo erlijiosorik ez izatea zaindu dugu. Edozein sinemen duenak, bere hilarrian jarriko du. ○

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak

(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)
Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



APAINDU BALKOIA ETA SARIA IRABAZI!

Jada zabalik dago Urdulizko balkoi apainduen lehiaketan izena emoteko epea. Uztailaren 26an amaituko da, eta ondorengo egunetan epaileek parte-hartzaileen lehi, balkoi eta terrazak bisitatuko dituzte. Loreek kaletik ikusgai egon beharko dute. Kategoria bitan banatuta -lehiho eta balkoiak alde batetik eta terrazak bestetik- txapeldun eta txapeldunordearentzat sariak egongo dira: 150 euro eta afaria irabazlearentzat eta 100 euro bigarrenarentzat. Ez galdu aukera!

SAHARAGAZ ELKARTASUN KARABANA GORLIZEN

Janariak batzen ari dira Fronte Polisarioko kideak Sahararen aldeko elkartasun karabanaren baitan. Uribe Kostan lagundu gura duenak Gorlizko Kultur Etxera azukrea, atuna, sardinak oliotan, arroza, pasta eta lekale lehorrak eroan ditzake. Baita konpresak eta helduentzako pixohialak. Ekainaren 30ean amaituko da epea.

XXIII. KANPOKO PINTURA LEHIAKETA BARRIKAN

Ekainaren 5ean XXIII. kanpoko margo lehiaketa ospatuko da Barrikan. Betiko legez, parte-hartzaileek denbora tarte mugatua izango dute margotzeko: goizeko 09:00etatik 17:30 arte. Udaletxepean zigilua jarriko da 09:00etatik 10:30 arte, eta gaia "Barrikako udalerría" izango da. Parte-hartzaileentzat hainbat sari egongo da: nagusia 600 eurokoa. Animatu eta parte hartu!

URIBE KOSTA

Kosta trail, Sopelatik Plentziaraino ekainaren 12an



Hiru kategoria ezberdin dago: 30, 20 eta 10 kilometrotakoak

Korrika 17 igaro eta korrika egiteko gogoagaz jarraitzen duzu? Ekainaren 12an Kosta Trail lasterketaren 6. edizioa izango da, eta izen-ematea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik. Aurten, lasterketaren hainbat eremu gogortu egin dira, eta beraz desafioa are handiagoa izango da. Arrigunagatik urten beharrean, Sopelako udaletxea izango da Kosta Trailen urteera. 30 kilometro zeharkatu ostean, Plentziako hondartzara helduko dira lasterketariak. Mendian federatuta daude-

nek 15 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek, 20.

Lasterketa nagusia ez ezik, beste bi kategoria egongo dira Kosta Trailen: mendi lasterketa eta familien martxa. Lehenengoaren distantzia 20 kilometrokoa izango da eta prezioa, barriz, 5 eurokoa. Martxa familiarrari dagokionez, parte-hartzaileek 12 kilometro zeharkatu beharko dituzte, eta izen-ematea ekainaren 11ra arte luzatuko dute. ○

Info+: www.forumsport.com/kostatrail

Mai. 23 - Eka. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Ibilgailu klasikoak.** Astillero plazan. Maiatzaren 29an, 10:00etatik 16:00etara.

ERANDIO

► **Chernovil bizirik.** Udaletxeko erakustaretoan. Maiatzaren 30ean eta 31n.

SOPELA

► **Welcome to Palestina, argazkiak.** Plaza Beltza kulturgunean. Maiatzaren 31 arte.

URDULIZ

► **Ibaialde.** Kultur Etxean. Maiatzaren 31 arte.

LEIOA

► **La Codorniz, 70 urte.** Kultur Leioan, ekainaren 26 arte.

ZINEMA

PLENTZIA

► **80 egunean.** Gofñi Portalen. Maiatzaren 24an, 19:00etan.

BARRIKA

► **Guztieki nahi zuten hilda.** Udaletxeko beheko solairuan. Maiatzaren 26an, 18:00etan.

GETXO

► **Valor de ley, Zine kluba.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 27an, 21:00etan. 2,90 euro.

URDULIZ

► **Hop.** Kultur Etxean. Maiatzaren 28an, 18:00etan.
► **La legion del aguila.** Kultur Etxean. Maiatzaren 28an, 20:15ean.



Sun magoa arituko da maiatzaren 28an, beste mago batzuek batera

► Ikuskizuna

Magiaren Astea Sopelan, 24tik 29ra

Trikimailu asko ikusi eta ikas daiteke Sopelan maiatzaren 24tik 29ra, Magiaren Astean. Tailerrak egingo dituzte, bai umeentzat, bai nagusientzat, 24an arrastiz. Biharamunean magia ikuskizun bi izango dira, bata Nagusien Etxean eta 18:00etan, bestea Kurtzio Kultur Etxean eta 21:00etan. Sartzea 6 euro ordaindu behar da azken hori. Maiatzaren 28an Kurtzion eskulan magikoak egingo dituzte 18:00etan eta ikuskizuna 21:00etan, hainbat mago izango da: El Tahir y La Florista, Sun magoa, Miguelillo eta Sylvana. Sartzea 10 euro izango da. Astea amaitzeko kalera aterako dute magia domeka 29an: herrian zehar ikuskizunak eskainiko dituzte 13:00etatik aurrera.

• **Non:** Sopelako hainbat lekutan • **Noiz:** Maiatzaren 24tik 29ra

LEIOA

► **Mujeres de El Cairo, Zineforuma.** Kultur Leioan. Maiatzaren 31n, 20:00etan. 2 euro.

GORLIZ

► **Diskofesta, Euskaraz olgetan.** Iberrebarrin. Ekainaren 4an, 12:00etan.

MUSIKA

GETXO

► **Beautiful Brains.** Algortako The Piper's Irish Puben. Maiatzaren 26an, 20:00etan. Doan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Ipuin kontaketa.** Villamonteko haur-liburutegian. Maiatzaren 26an, 18:00etan.

► **Aitona Matias, haur antzerkia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzaren 29an, 18:00etan.

ERANDIO

► **Cruzadas cotidianas.** Astrabuduko Kultur Etxean. Ekainaren 4an, 20:00etan. Doan.

BESTEAK

GETXO

► **Liburu aurkezpena: El corro de las niñas, Mari Cruz Garrido Pascualena.** Algortako Kultur Etxean. Maiatzaren 24an, 19:00etan.

► **Eskulangintza azoka.** Areetako Xake plazan. Maiatzaren 27tik 29ra. Doan.

SOPELA

► **Hitzaldia: Giza eskubideak Palestinan.** Plaza Beltza kulturgunean. Maiatzaren 26an, 19:00etan.

ERANDIO

► **Erandio ezagutuz, bisita gidatua: Erandioigoia.** Plazatik abiatuta. Maiatzaren 28an eta ekainaren 4an, 11:00etan.

► **Erandio ezagutuz, bisita gidatua: Altagak eraikinak.** Irailaren 23a plazatik abiatuta. Ekainaren 5ean, 11:00etan.

BARRIKA

► **Margo lehiaketa.** Ekainaren 5ean.

PLENTZIA

► **Skate erakusketa.** Futbito zelaian. Ekainaren 5ean, egun osoan zehar.

GORLIZ

► **Kirolari ateak zabalik.** Kiroldegian, ekainaren 5ean, goizez.

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)


Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Jairik jai...

Uda heltzear eta loratzen hasi dira jaiak han eta hemen. Maiatzaren 12tik 15era ospatu zituzten getxoitarrek sanisidroak. Erromeria, herri-bazkaria, antzerkia, kontzertuak, Itxas Argiako dantzaldia, luntxa e.a. Andra Mariko jaietan auzotar guztiak gozatu zuten, baita kanpokoek ere; izan ere, *parranda-busa* hara-hona ibili zen gau osoan jaizaleak etxera eroaten. Aupa sanisidroak eta betoz gehiago!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





3500 dantzari

Bizkaiko Dantzari Egunean
Getxon

Maiatzaren 15ean errugbi baloiak kaxkabiloek ordezkatu zituzten Fadurako errugbi zelaian. Bizkaiko Dantzari Eguna ospatu zen egun horretan, eta 'dantzari-inbasioa' jaso zuen Getxok: herrialde osotik etorritako 3500 dantzari baino gehiago batu ziren. Getxoko dantza talde guztiak ere bertan izan ziren: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi-Eskola. Momentu ikusgarriak bizi izan ziren Faduran, ikusleen gozamenerako: 60 talde Gorulariak dantzatzen, kaixarrankagaz 25 talde aldi berean grabitatea desafiatzeko, 1200 ume dantzarekin etab.

[berbetan]

Natura eta mendiarekiko maitasunak hormetan gora igotzera eroan zuen Irati Anda (Gasteiz, 1982) oso gazterik. Eskaladan zaletu moduan hasi, baina diziplina, ahalegina eta lehiaketekiko grinak munduko onenen artean egoten lagundu du; Espainiako Txapelketa irabazi zuen 2006, 2007 eta 2008 urteetan. Munduko Txapelketan 2. postua lortu zuen 2007an eta munduko ranking orokorrean 5. izatera heldu da. Arkaitzean 8Ca lortzera heldu da eta 8A *on sight* modalitatean. Hala ere, kirolak ez du gasteiztarra itsutu; bertsotan ibiltzea zein idaztea ere gustuko du Anda ipurterreak. Aurten Arabako Bertso Txapelketan parte hartu du, nahiz eta askorentzat EITBko reality show-ak egingo zuen ezagun.

Irati Anda

Bertso saioetako *spider-woman*

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hamar urtegez Ikastolako mendi taldean hasi eta hortik eskaladara pasa zinen. Naturarekiko maitasunak eroan zintuen mendietako hormetan gora?

—Bai, ziur asko hori izan zen arrazoi handienetakoa. Familian gurusoak mendizaleak izan dira eta txikitari beti ibili izan gara mendi inguruan. Aurrerago, Ikastolako mendi taldean eskalada ezagutu nuen. Baneukan mendiarekiko maitasuna eta eskalada ezagutzeko azken urratsa izan zen. Garai horretan hasi ziren rokodromoak sortzen Gasteizen eta eskalada eskuragarriago zegoen. Gero eta motibatuago, gero eta motibatuago eta azkenean... astean behin joatetik egunero joatera pasa nintzen.

—Gaur egun, ohikoagoa da eskalatzen ibiltzen den jendea ezagutzeko; baina, garai hartan, zelan hartzen zintuen jendeak eskalatzaile zinela esatean?

—Egia esan, Ikastolan ibiltzen ginen lagunaren artean gehienak apuntatu ginen eskalatzera; lagunaren artean eskalada giroa zegoen hasiera batean. Gero nik jarraitu nuen eta lagun gehienek utzi zuten. Nahiko normaltzat izan du nire inguruko jendeak. Etxean, pozik ikusten

nindutenez haiek ere pozik zeuden nire zaletasunarekin. Betiko “kontuz ibili” esaldiaz gain, nahiko normalizatuta zegoen eskalada nire inguruan.

—Zergatik jarraitzen duzu eskaladan, zer ematen dizu?

—Une honetan bigarren plano batean dut eskalada. Niretzako eskalatzetik bizi ahal izatea ametsa izan da. Baina, egia da ere, amets horrek sakrifizio ugari eskatu didala eta pixka bat gainezka sentitzen naiz eskaladarekin, nahiz eta argi dudan ez dudala sekula utziko eta nire bizitzaren parte oso aktiboa dela. Baina, une

tzailak zaudete. Zelan ikusten duzu eskalada gure inguruan, bai profesional bai zaleen aldetik?

—Euskal Herria oso mendizalea izan da beti eta alde horretatik, eskaladak jaso du mendizaletasun horren zatitxo bat. Profesionaltasunari dagokionez, uste dut momentu honetan eskalada ez dagoela bere momenturik onenean, nahiz eta maila handiko eskalatzaileak dauden. Baina, orokorrean eta txapelketei begira, une honetan hutsune handia dago. Entrenamenduak, diziplina... lan oso gogorra da eta gaur egungo gizarte balo-

“Eskalatzetik bizi ahal izatea ametsa izan da; baina sakrifizio ugari eskatu dit eta gainezka sentitzen naiz”

honetan, lasaiago eskalatu behar dut, ez horren modu profesionalean eta horren besteko diziplinarekin. Hori oso gogorra da, bai gorputzarentzat baita buruarentzat ere. Batzuetan burua eta gorputza lasaitzeko denbora behar da eta momentu horretantxe nago orain.

—Euskal Herrian izen handiko eskala-

reetan hori guztia galtzen ari da: ahalegina, sakrifizioa... Beti bilatzen dira gauza errazak, arrakasta azkarra bilatzen da. Kirolari dagokionez eskalada epe luzerako helburuak lortzera bideratuta dago eta askotan helburuak ez dira lortzen, mundu gogorra da. Gaur egungo jendarteko baloreak ez datoz kirol profesionala-



rekin bat. Hori nire hausnarketa pertsonala da. Momentu honetan puntu horretan dago gizartea, ez bakarrik eskaladan, baizik eta orokorrean.

—**Eta zaletasunari dagokionez?**

—Zaletasunari dagokionez bai nabaritzen da gero eta jende gehiago ari dela eskalatzen. Boom txikia dagoela esan daiteke.

—Aipatu dituzu txapelketak eta eskalda profesionala. Bertsoaritzan bezala kirolean ere badaude txapelketak kaltegarriak direla uste duenik. Zuk zelan bizi izan duzu goi mailako txapelketen giroa?

—Pertsonalki behintzat, nire ustez txapelketak aberasgarriak dira. Maila eta izena ematen diote kirolari eta promoziorako balio dute. Egia da txapelketa muturrera eramanda eta serioegi hartuta, konpetentzia ez bada modu sanoan hartzen egon daitezkeen “pikeak” eta azpikoak kalte dezakete apur bat praktika horren mundua, nire kasuan eskaladarena. Baina, nik txapelketak ulertzeko dudak moduaren arabera, erabat aberasgarria dira kirola ezagutzeko, laguntza gehiago lortzeko eta aurrera jotzeko. Baina beti modu sano eta natural batean. Azpikoekin hasiz gero gauzak itsusitu egiten dira eta egia da egon daitezke arazoak ez direla inoren gustuko. Baina denarekin bezala, neurrian hobeto.

—**Elkarrizketa batean esan zenuen “eskalatzaile barri askok ez duela naturarekiko errespeturik”. Zergatik?**

—Lehen ez zegoen rokodromorik eta eskalatzen hasten ginenean zuzenean mendira jotzen genuen. Orain, adibidez Gasteizen, rokodromo ugari dago eta oso eskura dago eskalada. Mendi ingurunea eta natura ingurunea ezagutzen ez duen jende asko hasten da. Nik behintzat nabaritzen dut naturarekiko harremana ez dela berdina, mendian hasi edo rokodromoan hasi mendi ingurunea ezagutu gabe. Eskalatzen dute, baina beste filosofia baten barruan. Eskalatzen dute baina hobby bezala, besterik gabe. Guretzat

bizitza ulertzeko modu bat ere bada eskalada. Badago jendea mendian hasten dena eta natura maitatzearen aldeko filosofia daukana. Baina rokodromoan hasten den jende askok ez daki zer den mendira joatea; hori asko nabaritzen da.

—**Lesionatuta egon zara azken hilotan eta bitarte horretan Arabako Bertso Txapelketan parte hartu duzu eta idaz-**

“Guretzat bizitza ulertzeko modua da eskalada; rokodromoan hasten diren askok ez daki zer den mendira joatea”

ten eta beste hainbat kontutan ere ibili zara. Kirola ez dagoenean ere geldirik egon ezin?

—Baietz uste dut, azkenean ondorio horretara heldu naiz. Gauza berriak probatu behar ditut. Ez naiz geldi egoten, aktibitatea behar dut. Geldirik banago... ufa! Ito egiten naiz. Ez dakit energia gehiegi ote daukadan baina bai, gustatzen zait gauza berrietan aritzea. Bizirik sentiarazten nau horrek.

—**Zelakoa izan da txapelketako esperientzia?**

—Egia esan, ez dut denbora gehiegi izan entrenatzeko. Bertsoekin ere asko disfrutatzen dut eta Arabako Txapelketa martxan zegoen bertsoei berriro ekin nienean. Pentsatu nuen, zergatik ez? Aurkeztuko naiz. Egia esan oso dibertigarria izan da. Pixka bat berde heldu nintzen, errimak erdoilduta, doinua pixka bat ahaztuta... baina giro oso polita egon da, jende asko aurkeztu da, gazte pila bat... Gainera kanporaketak afal osteko giroan egin dira eta

“Bertsoekin ere asko gozatzen dut eta Arabako Txapelketa hasi zenean pentsatu nuen, zergatik ez?”

horrek nerbioak ahazteko aukera ematen du. Alde horretatik, asko disfrutatu, oso ondo pasa dut eta hurrengoetarako ere

animatuko naiz seguru asko.

—**Emakumea eta goi mailako kirolaria. Kirolari askok aipatu digu oraindino emakumea 2. maila batean dagoela kirol munduan. Eskaladaren kasuan, zelan bizi duzu hori?**

—Kirola gizartearen isla da; gero eta presentzia handiagoa daukagu, baina oraindik asko falta da komunikabideetan ate-

ratzeko, diru laguntzak jasotzeko... Batzuek esaten dute emakume izatea hobe dela, besteek ezetz... Egia esan, horri garrantzi handirik ez ematen saiatzen naiz; nire burua pertsona bezala hartzen dut eta gauzak pertsona naizen heinean egiten ditut. Baina, egia da, ezin dela alde batera utzi jasotzen dugun tratamendua. Nik, batez ere, komunikabideetan ikusten dut: zelan ematen diren emaitzak... Azken finean, zure burua ezagutzera eman nahi baduzu, komunikabideak ezinbestekoak dira.

—**Beste kirol batzuek alderatuta (futbola, saskibaloia, tenisa e.a.), zein esango zenuke dela eskalada eta emakumeen arteko harremana?**

—Nik uste horiekin alderatuz eskaladan egoera pixka bat hobea dela. Futboleko, saskibaloian eta horrelakoetan apenas azaltzen dira emakumeak. Eskaladan zer edo zer egiten dugunean atera egiten da behintzat. Baina, azkenean, gutxitan ateratzen dira bai gizonezkoak bai emaku-

kezpenean egon zinen. Euskaldun moduan ez duzu txapelketetan parte hartzerik izan. Espainiako zein Mundu mailako txapelketetan parte hartu izan duzu. Zelan bizi duzu zuk hori?

—Nik modu naturalean hartzen dut, daukagun errealitatea hori baita. Argi dut lehiatzea maite dudala eta ez dut sentitzen Espainia ordezkatzeko ari naizenik nahiz eta erakundeentzako horrela izan. Ni kirolari moduan noa eta banoa kirola praktikatzera; badakit instituzionalki Espainia ordezkatzeko ari naizela, baina ahazten saiatzen naiz. Nahi nuke Euskal Herriaren izenean joan, baina pixkanaka-pixkanaka urrats txikiak emanez eta euskaldunok adierazten badugu benetan nola parte hartu nahi dugun eta nola bizi nahi dugun gure kirola, lortuko dugu. Eta horrela izan dadila, nahiz eta modu ofizialean ez izan. Hori da daukagun errealitatea; ni saiatzen naiz dena erlatibizatzen eta nire buruari ez diot harririk botatzen. Nire buruan eta bihotzean argi daukat zer sentitzen dudana; horrekin gelditzen naiz.

—**Txapelketetara, Espainiara edo Europara zoazenean, zelako jarrera hartzen dute beste kirolariek horrekiko?**

—Gaia ateratzen da. Egoera kuriosoa sortzen da. Eskaladan gehienak katalanak eta euskaldunak gara. Beti hitz egi-

ten dugu, aurkezpenetan bandera eraman behar dela eta inork ez duela eraman nahi... eskalada orokorrean kirol hippy xamarra da. Teknikariekin edo gurekin etortzen diren entrenatzaileekin hitz egin izan dugu eta gure postura ulertzen dute. Sentsibilizatzen dira gurekin. Baina, aldi berean, esaten digute argi dagoela norekin goazen eta nork ordain-

“Argi dut lehiatzea maitatzen dudala, eta ez dut sentitzen Espainia ordezkatzeko ari naizenik”

ten digun bidaia. Lehiatzeko adibidez derrigorrezkoa da kamisetan bandera eramatea. Araudian azaltzen... nazioarteko federazioak ezarritako arauak dira. Gaiaz hitz egiten da, baina ez diogu garrantzi handirik ematen.

—**Orain gutxi *El Conquistador del Fin del Mundo* reality-show-an egon zinen. Zure lehenengo esperientzia reality batean? Zelako esperientzia izan da?**

—Sorpresa handiena programa emititzen hasi zirenean heldu zen; irudien tratamendua ikustean. Pixka bat harrিতa gelditu nintzen; gehiegi ez zait gustatu alde horretatik. Baina bertan egon nintzenez, hori guztia bizitzen, esperientzia

oso polita eta positiboa izan zen. Dibertigarria. Gustura egon naiz, mendia... gauza asko niretzako ezagunak ziren. Proba askotan sufritu egiten da, baina hori gustatzen zait; ez reality show-arena baizik eta lehiatzearena, taldeetan egotearena... Alde horretatik, niretzat *El Conquistador* saioan egotea esperientzia polita izan da. Gerora, telebistako kon-

tuak gutxiago gustatzen zaizkit. —**Hainbesteko alde dago bertan bizi duzuenetik telebistan ikusten dena?**

—Bai, nire ustez, bai. Alde handia dago: nola jartzen dituzten irudiak, nola handitzen duten dena musikarekin lagunduta... Azkenean, irudietan agertzen dena gertatu da, zalantzarik gabe, baina dena handituta ateratzen dute.

—**Eta kirolari moduan; egia da “saldu” nahi duguten gogortasuna?**

—Nik pentsatzen nuen gogorragoa izango zela. Egia da momentu gogorak pasatzen direla; badaude proba gogorak, hotza, gosea... baina nik uste nuen esperientzia oraindik gogorragoa izango zela. ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....


Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□





Mekong ibaiari segika

Bere ametsa errealitate bihurtu zuen Aitor Mantuliz sopeloztarrak iazko uztailean. UK 193n elkarrizketan kontatu zigun legez, Mantulizek Mekong ibaia jarraitu zuen bizikletaz eta piraguaz. Vietnam, Kanputxea, Laos, Txina, Tibet... sei hilabeteko bidaian hainbat herrialde zeharkatu eta hainbat lagun egin zituen bidean. Orain dela ale bi Mantulizek berbakaz kontatu zigun bere abenturatxoa. Oraingoan, argazkiakaz kontatuko digu. Oraindino ez badakizu udan nora ihes egin, proposamen ederra izan daiteke!

Argazkiak: **Aitor Mantuliz**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zinema euskaraz abian

Zine-aretoetan, eskolan, DVDan edota internetez ikus daitezke filmak, euskaraz



Crossing over filma ikus daiteke

Herritarrei zinema euskaraz ikusteko aukera emateko helburua dauka Eusko Jaurlaritzaren Zinema Euskaraz programak, "zinema euskaraz eskatzen dutenentzat eskaintza nahikoa bermatzea eta euskara kultura eta erabilpen sozialeko hizkuntzatzat sustatzea".

Horretarako, bost jarduera edo bide ipini dituzte, ikusle mota orok zinema euskaraz ikusteko aukera izan dezan: zine-aretoetako estreinaldiak, DVD salmenta, interneteko streaminga, Udalerrietako zine-aretoak eta eskolak. Baina goazen bana-banan.

Hiriburuetakoz zirkuitu-komertzialetan estreinatzen dituzten filmak gazte-

leraz eta euskaraz iristen ei dira aldi berean. Estreinatuta oostean, Udalerriek aukera izango dute pelikula horiek eskuratu eta herritarrei erakusteko, hala eskatuz gero.

Eskoletan ere ikusi ahalko dituzte euskarazko filmak, Zineskola programagaz egindako akordioari esker. Hortaz, zine-aretoetan estreinatzen diren filmak eskola-zirkuituan sartzen dira. Zinema euskaraz programako filmak ikusiko dituzte aurten 25.000tik gora ikasle eta irakasle.

Baina etxetara ere iritsiko da egitasmoa, bai DVD formatuan, bai internet bitartez. DVDak erosi behar dira, baina 30etik gora film doan ikus daitezke interneten, streaming bidez, www.kulturklik.net eta www.eitb.com webguneetan.

"Euskara kultura hizkuntzatzat sustatzea da helburuetako bat"

Aurtengo hainbat estreinu ikus daitezke: Lurralde Debekatuak (*Crossing over*), *Last Night*, Jainkoez eta Gizakiez (*Des hommes et des dieux*), Ezitia (*Miel*) edota Mundu hobe batean (*In a better world*). Umeentzako filmak ere ikus daitezke: Cristobal Molon, Glup edota Betizu eta urrezko zintzarria. ○

www.kulturklik.net eta www.eitb.com



Kamisetak eta Fotokopiak

Telletxe 13
48993 ALGORTA
www.ametscamisetas.com

Teléfonoa: 94 460 10 31
Fax: 94 460 86 62
amets@ametscamisetas.com

Udaberri Fest hasi da!

Lehenengoz egingo dute musika jaialdia Zarautzen eta izen handiko taldeek joko dute



Ekainaren 3an joko du Zea Mays taldeak

Abian da Udaberri Fest Zarautzen. Aurten estreinatuta du musika jaialdia Zurekin Zarauzko Ostalarien Elkartek. Hainbat estilotako taldeak jotzen dabilta, eta daborduko igo dira taulara Delorean, Txomin Artola, Anje Duhalde, Gatibu, Berri Txarrak edota Esne Beltza talde ospetsuak, baina gehiago daude bidean.

Maiatzaren 28an, zapatuan, ikuskizun ederra eskainiko dute Oreka TX, Kukai eta Amaren Alabak taldeek. Aurrez 15 euro ordaindu behar da, eta txarteldegian 18 euro. Ekainean Gose eta Zea Maysen kontzertuagaz hasiko dute egitaraua, hila-

ren 3an, barikua; aurrez 10 euro eta txarteldegian 13 euro. Ekainaren 17an, barikua ere, Sorkun eta Fangoriaren txanda izango da; aurrez 25 euro ordaindu behar da, txarteldegian 30 euro. Azkenik, San Juan egunean arituko dira The Uski's eta Nena Daconte; aurrez 20 euro eta txarteldegian 25 euro. Lau kontzertuak izango dira Kiroldegian, 22:30etik aurrera.

Lo egiteko ere dena antolatuta daukate, eta 5 euroren truke lo egin daitezke kanpinean, denda eroanda. Aitzakia parebako duzu ondo pasatzeko! ○

Info+: udaberriest.com

getxo sarrerak > blues eta jazzera

Dagoeneko sarrerak eros daitezke Getxoko Blues eta Jazz jaialdiarako. Getxo Blues ekainaren 17tik 19ra izango da, Getxo Jazz uztailaren 1etik 5era. Hainbat bide dago sarrerak eskuratzeko: BBK-ko kutxazainetan, www.bbk.es gunean, 944 310 310 telefonora deituz edota Algortako Kultur Etxean. Jaialdi biak Algortako Biotz Alai plazan izango dira, baina Getxo Jazz dagokionez, beste plaza batzuetan ere eskainiko dituzte emanaldiak. Blues estilon arituko dira Javier Vargas Blues Band eta Devol Alman, edota Otis Taylor eta Corey Harris; Jazz jaialdian, barriz, Chucho Valdes edota Branford Marsalis Quartet.

www.getxo.net

bilbao hiria > izena eman daitezke

Bilbao Hiria musika-talde hasiberriak bultzatzeko lehiaketa da eta 23. edizioan parte hartzeko izena eman daitezke www.bilbao.net/bilborock web orriaren bidez maiatzaren 31 arte, pop-rock, metal eta bestelako joerak modalitateetan. Aurten botoa on-line emango da eta sari gehiago egongo da: lehen sari bi ematen zituzten metal modalitatean, orain hiru; eta bestelako joeretan sari bakarra zegoen, orain bi. Gainera, hiru kontzertu eskainiko dituzte azken estilo horretan. Kontzertuak eskaintzeko aukera ere emango dute sarien artean. 2009an Sopelako Rise to fall taldeak irabazi zuen lehiaketa, metal modalitatean.

www.bilbao.net/bilborock

diskoak

Carbono Catorce
Yogurinha Borova
Gor



Eduardo Gaviñaren pertsonaia garrantzitsua da Yogurinha Borova. Pertsonaiaren desirak eta mamuek markatuta dator abesti bakoitzaren zergatia, hain zuzen ere. Zoriz hasi zen kantuak egiten, baina Gaviñarentzako bizitzako motore izan da beti musika. Izan ere, edozer gauza adierazteko modurik hoberenetako bat deritzo.

Lehen lerroan
Itziarren semeak
Musiknema



Hirugarren lana dute mungiarrek. Kortatu taldearen *En la línea del frente* kantuari erreferentzia egiten dio diskoaren tituluak, izan ere, "lehen lerroan izan direnei" eskaini dizkiete 14 kantuok. Era berean, tituluak "argi erakusten ditu taldearen sustrai musikalak non dauden", ska eta punk doinuak nagusitzen baitira.

Estankona
Borja Estankona
Baga Biga



Arean musika taldea deseginda, bakarkako bideari ekin dio Borja Estankonak eta melodia eta kantuen barneko sentimenduetara iritsi gura du disko honeguz. "Garden eta lanbrotsu rockaren anabasan", kantu personal eta intimoak osatu ditu. Euskarazko letrei pop eta rock doinuak lagundu die Arteko gitarra jotzaile eta abeslariak.

etorri
eta
ikusii!

MORIXA

liburudenda

Alargoeta 8 (Euzko Herria kalegoz bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellexe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Hausnartzeko tarte barria

Filosofia eta teoria kritikoa

uztartzen dituen Hausnart **aldizkari barria** kalean da

Lapiko Kritikoa kolektiboaren egitasmo barria duzu Hausnart aldizkaria. Filosofia eta teoria kritikoa uzartzen ditu eta dagoeneko argitaratu du 0. zenbakia. Eztabaida sozialak hedatzeko helburua dauka Lapiko Kritikoa, egungo arazoei buruzko ikerketak, azterketak eta azalpenak sortuz.

Joxe Azurmendik Filosofiaren Historia lanean proposatu ideia burutzeko ahalegina egiten du kolektiboak: *“elkarrizketa eta eztabaidarako komunitate egonkorra osatzea; kultur-teoria garaikidearen arloan, gogoeta eta espekulazio filosofiko autonomo bati bizia ematea; eta eremu ez akademiko zein irakaskuntza unibertsitarioaren arteko elkarlana areagotzea eta areago antolatzea”*.

Mezenas bila dabilta aldizkaria paperean kaleratu ahal izateko

Idea horri jarraituz plazaratu dute Hausnart, eta bide horretan, *“goi-mailako”* aldizkaria lortu gura dute. Horregatik, ez dute argitaratzeko epe-mugarik zehaztu eta lanen zein testuen kopuruaren eta kalitatearen arabera kaleratuko dituzte zenbaki barriak; halere, urtean hiruzpalau atera gura dute.



Sarrionandiari elkarrizketa egin diote

Baina edukiaz eta maitasunaz gainera beste berezitasun bat dauka Hausnartek: euskarria. Hasieran pdf formatuan argitaratuko da Lapiko Kritikoren webgunean: basque.criticalstew.org, eta ondoren, paperean. Ale bakoitza 6 euro ordainduko da, eta beraz, *mezenas* bila dabilta paperean inprimatu ahal izateko: aldeztatik hainbat ale pagatuko dute lagun horiek, eta diru horregaz, inprimaketa eta bidalketa ordainduko du kolektiboak. Ondoren, gura duen eran zabalduko dute aldizkaria *mezenasek*. Horretarako, ondoko helbidearen bitartez eurek harremanetan ipini: lapikokritikoa@hotmail.es.

liburuak



Igelak benetan hiltzen dira
Iñaki Irasizabal
Elkar

Kostako herri batean neska gazte bat desagertuko da, dana hankaz gora jarriko du. Poliziak emaitzarik lortzen ez duela ikusita, desagertuaren aita, udaltzaina, bere kabuz ikertzen hasiko da. Misteriozko nobela honek jende arruntaren eguneroko bizimodua islatzen du.



Amonatxoak
Charo Pita/Fátima Alonso
Txalaparta

Antea eta Filipa amonatxoak elkarregaz bizi dira. Antek indaba bat aurkituko du; lurrera eroriko zaio eta horretatik landare erraldoia jaiko da. Indaba-landarean gora hastean Filipa erori eta hamaika zatitan puskatuko da. Antek lagunaren zatiak batu eta bizibarrituko du.

[kirola]

Egindako beharragaz, harro

Leioako Waterpolo taldea

Lehen Mailara bueltatuko da San Vicente **7-1 irabazi ostean**



Leioako neskek maisutasunez irabazi dituzte igoera faseko norgehiagoka guztiak

Biribila. Horrelakoa izan da Leioako waterpolo taldearen aurtengo denboraldia. Urte bat bigarren mailan igaro ostean, waterpoloaren mailarik gorenera bueltatuko dira emakume leioztarrak hurrengo denboraldian. Igoera, gainera, maisutasunez eskuratu dute, sailkapen faseko norgehiagoka guztietan garaipenak eskuratu dituzte-eta. San Vicente taldearen aurkako azken partidaren, argi eta garbi gailendu ziren: 7-1.

Igoeraren saria ez ezik, beste sari bi ere eskuratu ditu Leioako taldeak: igoera faseko jokalaririk onenaren saria Vanesa Freirek jaso du eta txapelketaren goletzailarena, barriz, Leire Sarasolak. Jon López entrenatzailea oso pozik agertu da taldeak honetan egindako beharragaz: *“Denboraldia espero bezain ondo joan zaigu, udan jarritako helburuak bete zaizkigu. Helburu nagusia lehenengo mailara itzultzea zen. Erraz nagusitu gara partida erabakigarritan, baina hori azken urteetako lan handiari esker izan da. Benetan harro gaude egindako denboraldiagaz”*. Igoeraren

erronka lortuta, hurrengo denboraldian mailari eustea izango da Leioako taldearen helburu nagusia. *“Iazko eskarmentua oso baliogarria izango zaigu, taldea asko bazi da azken urteetan eta maila ere altuagoa da”*.

“Taldea osoaren izenean, eskerrak eman gura dizkiegu zaletuei”

Horretarako, zaletuen babes beharrezkoa izango dute. Igoera fasean, esaterako, Askartzako igerilekua txiki lotu da nesken partidak ikusteko. Jon López entrenatzailea harrিতuta agertu da Leioak emandako erantzunagaz: *“Herriaren babes genuela bagenekien ere, ezustean harripatu gaitu igoera fase honetan gertatutakoa. Talde osoaren izenean, eskerrak eman gura dizkiegu igerilekura bertaratutako zaletuei”*. Hedabideei ere eskerrak eman gura izan diete Leioako lagunak, bai waterpoloari bai emakumezkoen kirolari ‘oraingo honetan’ eskaini dioten zabal-kundeagatik. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Euskara teknikariak > Izarren Distira Topaketan antolatzaileak

“Topaketa da Izarren Distira ekimeneko aurtengo barrikuntza nagusia”

Uribe Kostako Mankomunitateko eta Getxoko euskara teknikariak antolatzen dabilta gazteentzako Izarren Distira Topaketak, beste Udalerrri batzuek batera. Ekainean izango dira Urduñan, baina dagoeneko izena eman daiteke parte hartzeko.

—Izarren Distira gala ez da barria.
—Duela hiru urte abiatu genuen helburu argi batekin: gaztetxoaren artean euskararen erabilera sustatzea. Nerabeek ez dute euskaraz egiten eta hor eragin nahi genuen. Getxon martxan jarri genuen hasieran, 12urretik 18ra bitarteko gaztearen artean prozesu txiki bat eta festa bat antolatzeko asmotan. Eurek aukeratu kanta, dantza edo bertso-antzerki moduko gala batean egiteko aukera ematen genien. Sariak ere bazeuden. Bertan eta entseguetan euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egiten genuen. Apurka gehitu dira beste herriak: Uribe Kostako eta Txorierriko Mankomunitateak eta Durango.

—**Aurten Topaketak ere izango dira.**
—Aurtengo barrikuntza nagusia da. Iazko galaren ostean balorazio sakona egin genuen gurasoekin, irakasleekin eta gazteekin. Ekimenari beste buelta bat eman behar geniola ohartu ginen. Prozesua luzatzen du Topaketak, orain hasi eta urria bitartean. Uda aurretik izango da lehen fasea, Topaketan parte hartzea proposatu diegu gazteei: zer egin gura duzu? Antzerkia? Dantza? Bidegintza edo argazkigintza gustuko duzu? Ala abila zara eskulanean? Zatoz eta Topaketetan tailerrak egingo ditugu gai horiek lantzeko. Ondoren ikusiko dugu ea zer ateratzen den hortik.



Ekainaren 14 arte izena eman daiteke: info@izarrendistira.com edo 663 083 736

—**Nolakoa izango da Topaketa?**
—Ekainaren 28 eta 29an izango da, Urduñako aterpetxean eta doan. Tailerretaz gain, gaubela eta afari berezia izango da. Uribe Kosta, Txorierra eta Durangaldeko gazteak elkartzeko dira.
—**Noiz arte eman daiteke izena?**
—Ekainaren 14 arte, 663 083 736ra de-

“Ekainaren 28an eta 29an izango da Topaketa Urduñako aterpetxean; Uribe Kosta, Txorierra eta Durangaldeko gazteak elkartzeko dira”

tuz edo info@izarrendistira.com helbidera idatziz. Euskaraz komunikatzeko gai izatea, 12 eta 18 urte bitartekoa izatea, eta ondo pasatzeko eta kolaboratzeko gogoia izatea eskatzen dugu.
—**Zelako lotura dauka ekimenak udazkeneko ohiko galagaz?**
—Bigarren fasea izango da galaren pro-

zesua. Uda ostean ekingo diogu horri. Topaketan egon direnek eta ez direnek, denek parte har dezakete. Agian Topaketatik aterako da udazkeneko erakustaldiaren oinarria. Baina irudi telebisiboa kendu nahi diogu galari eta beste-lako gauzak egin ditzakete: erakustaldia grabatu, eszenografian lagundu e.a.

—**Jarraikotasunik izango du?**
—Bai, zabaldu nahi genuke, agian erakustaldiaren ostean eskoletan edo jaietan erakutsi, herriak ikus dezan egin dutena. Baina oraindik ez dugu pentsatu. Bestalde, lehen faseari ekiteko *graffiti* bat egin bagenuen, bigarrena hasteko ere beste kale ekintza bat egingo dugu. ○

Fredi Paia

Zanatene

Gorputza gurtzen dauan egungo gizartean, osasuna min fisiko ezagaz lotuta ulertzen dogu sarri. Euren burua naturagaz batasunean ulertzen eben gure arbasoek, ostera, ez eben errealitate fisikoaren eta izpiritualaren arteko banaketarik ulertzen. Inmateriala materialaren alde ezkutua zan, bata bestea bezain garrantzitsua. Ondorioz, osasun fisikoa eta emozionala batasun legez hartzen ebezan. Gatz fisiko guztiak izpiritualak bere baziran, eta osabideak beti eukazan alderdi bi horreek: fisikoa, bedar eta igurdien bidez osatzen zana, eta izpirituala, izaera magikodun errituek osatzen ebena. Azken belaunaldietara arte existitu dan osasuna ulertzeko modu hori ulertzeko adibide bat dakartsuet gaur: zاناتene edo *zan etena*.

Bihurkade esaten jako gure eskualdeko euskera jatorrean gazteok *esguince* deitu ohi deutsegun minari. *Zana* esaten deusie gure aitite-amamek gaurko medikuek *tendo* esaten deusienari. Gure eskualdeko herri guztietan egon dira XX. mendean *zاناتene* egiten ekien andrazkoak, eta oraindino bere badira.

Zاناتene egiten jakitea *buruko grazi* dala dinoe gure lekukoek. Hau da, pertsonari jaiotzetik berez datorkon bertutea. Herri pentsakerean osasungileek, ikasi baino, jaiotzetik eukien dohaina besteon onerako erabilten eben.

Zanetena egiteko *zanbedar* (*Plantago*) izeneko sendabedar bi erabilten ziran: batak orri luzeak daukaz (*Plantago lanceolata*) eta gizonezkoen bihurkadak osatzeko erabilten zan. Andrazkoen kasuan, ostera, orri biribildun *zanbedarra* (*Plantago media*) erabilten zan.

Zanbedarrak oriotan frijitzen ziran, eta gero, minutako gorputz atalaren ganean kurtzeak egiten ziran bedarrokaz, eskuakaz igurdiak egiten ziran bitartean.

Baina ekinaldi horrek guztiak ez eukan



Zanbedar sendabellarra

ezelako eraginik izaera magikodun esaldi hau errepikatzen ez bazan, kopuru bakoitiantian beti, osabidea egin bitartean: “*Zاناتene, zana urrutu, zana bere lekuretu*”.

«Zاناتene egiten jakitea buruko grazi dala dinoe gure lekukoek. Hau da, pertsonari jaiotzetik berez datorkon bertutea»

Behin bedar-kurtzeak, igurdiak eta esaldi magikoa errepikatzeaz amaitzerakogan, bihurtutako gorputz atala *mendau* edo

bendatu egiten zan. Bendatu ostean alkarregaz errezu bat egiten eben gaixoak eta zanetengileak. Benda hiru edo bederatzi egunez eduki behar izaten zan ipinita. Hobekuntzaren arabera hirugarren egunean kenduko eben. Baina hirugarrenean kendu ezik, bederatzigarrenean arte ezin izaten zan kendu, mina lehenago desagertu arren bere. Hiru eta bederatzi egunetako zikloak osasunagaz lotutako antxinako pentsakera magikoaren parte dira. Adibiderako, San Blasen kordela, bederatzi egunez eduki behar dana idunean, erre aurretik.

Hori bai, mesedez, bihurkadarik egiten badozu jo eizu osatzen dakien batan baten-gana. Esperimentuak, gaseosagaz beti. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK Taberna
 Mariandresena 1, Algorta



txakoli mota gane tx
 txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 WWW.UNAITABERNA.COM
 94 466 16 61
 URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko aukera]

Cinegourland Getxon

Maiatzaren 26tik 28ra ospatuko da



Yvonne Blake diseinatzaileari saria emango diote

Zinema eta gastronomia askotan bat datoz. Horren erakusle da Cinegourland Zinema eta Gastronomiaren ikus-entzunezko jaialdia, eta V. edizioa egingo da maiatzaren 26tik 28ra, Getxon. Ikus-entzunezko ikuspegitik aztertuko du gastronomia, proiektzio, eztabaida, lehiaketa, kontzertu zein jaien bidez.

Proiektzioak Andres Isasi Musika Eskolan egingo dituzte. Lehiaketei dago-kienez, bi izango dira maiatzaren 28an: Txokoen artekoa eta tabernen artekoa. Lehenari *El secreto de sus txokos* izena ipini diote eta hainbat txokok bizkaitar erara prestatuko dute bakailaoa, elkarren arteko lehian. Bigarren lehiaketa izango da *Zinemako Pintxoak*; herriko tabernek eta jatetxeek sortuko dituzte pintxoak, film

ezagunetan oinarrituta. Bestalde, *Cinefilos y Gourmets* sariak banatuko dituzte hilaren 27an. Arte bien bat-egitearen aldeko "grina erakutsi duten bi gremioetako pertsonaiak" sarituko dituzte: Yvonne Blake jantzi diseinatzailea, Isabel Prinz, Sancho Gracia eta Javier Merino aktoreak, Patricia Gaztañaga aurkezlea eta Aitor Elizegui sukaldaria.

Juan Mari Arzak sukaldaria ere Getxora hurreratuko da "Sukaldaritzaren negozioan arrakasta nola izan" mahai-inguruan parte hartzeko. Beste ekimenen artean *De cine* delicatessen-produktuen azoka izango da, The Hot Wok taldearen kontzertua, eta maiatzaren 26an, sardina-jana Portu Zaharrean. ○

www.cinegourland.com



Jurikaldai
 JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI
 KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO




BASARTENA
 URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128




JUAN-MARI
 Harategia eta txarkuteria
 ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
 URDAITEGIXA
 Adukuak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
 frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 FM

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Ibilaldia dator eta txosnak ez dira gauza bera izango zu barik. Nork edango ditu zure tragoak? Gorriak ikusiko dituzte aurten etekina ateratzeko...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Atzerrian bizi den osaba etorriko zaizu bisitan. Zuk uste zenuen aberastu egingo zela Ameriketara, baina ezta gutxiago ere! Orain berak behar du zure laguntza eta eskatu egingo dizu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Udabarria aurrera doa eta zu horren alai, zoriontsu bizi zara. Ekaineko epeltasunak ere on egingo dizu eta jende interesgarria ezagutu eta makina bat abentura biziko duzu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Egun sargaritsua izango da laster eta eguzkiak eta itsasoak erakarrita hondartzara joan eta pentsatu barik sartuko zara uretan, baina kontuz! Ura hotz dago oraindik...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gero eta luzeagoak dira egunak, gero eta beranduago exeraten zara. Zu pozik, baina etxekoak ez horrenbeste. Tentuz ibili, egunen batean atea itxita topatuko duzu, etxea ez baita hotela.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zorionak eta mila muxu! Urteak betetzera zoaz, zenbat dira dagoeneko? Horrenbeste? Ez arduratu eta ospatu lagunakaz edo senideakaz, eguna argitu arte...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Maitasuna, hartatik edo besteagatik, beti da maitasuna. Batzuetan ona, baina besteetan maitemina. Azken horrek harrapatu zaitu? Lasai egon, hobe bakarrik konpainia txarrean baino.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Uda ate joka eta zu liburutegian sartuta lan eta lan, ikasi eta ikasi, hori uste dute gurasoek behintzat. Ez dakite, ordea, lagunarte ederrak egin daitezkeela liburu artean ere...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Barrio dieta egiten? Urtero zabilza bardin, hiru aste irauten dizu larritasunak eta ondoren betiko ohiturara buelta. Agian hobe, iazko bainujantzia handi lotuko zaizu bestela.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Hainbeste denbora bakarrik urteten, mendira joateko koadrila topatu duzu azkenean, zorionak! Kirolagaz zu bezain zoroak badira laster egingo duzue bidaia Himalaiara.

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Irrikan zaude Lamiakoko Maskarada ikusteko eta auzo horretako jaietan murgiltzeko. Urtero legez, dantza eta jaja ez dira faltako. Aurten animatuko al zara lamia jantztera?

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Goizeko seietan jaiki, bazkaltzeko ia betarik ez eta gaueko hamararak arte bulegoan, lan eta lan, lotu barik. Ez pentsa nagusia lausengatzeagatik lanean gora egingo duzunik!



NORA EUSKAL HERRIA


Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miazteko eta ezagutzeko.

Eskuratu
KIOSKOAN: Hilabetero 2,5€ ordainduta BERRIA egunkariarekin batera
ETXEAN: Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta. Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info

Erastian dago kokka

Erdiko letrak falta zaizkie hiru multzo hauetako hitzei. Letra horiek berdinak dira multzo bakoitzean. Zuei dagokizue zein diren asmatzea.



ez horren gazetxoak < bilatu eta irabazi > gazetxoak

Zein kiroletan aritzen da Irati Anda Berbetan ataleko elkarrizketatua?

> Aurrekoaren erantzuna: Ander Iturriotz

> Irabazlea: **Mari Jose Markaida***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Zenbat auzo ditu Getxo Udalerriak?

- **Bi**
- **Ehun eta zortzi**
- **Bost**

> Aurrekoaren erantzuna: Mirri Junior

> Irabazlea: **Nahia Barrena***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JURDANA ALTONAGAK UTTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOKO ARTEAGA AURREKOA BASERRIAN, 1938

Baserri honetara joaten ziren argazkiko soldaduak, Errepublikakoak, preso (Francoren Altxamendu militarrean, 1936-39) zeudenak Galean. Arropak garbitu, zauriak sendatu eta, ahal zenean, zerbait jan; denetarikoa laguntza izan zuten bertan. Rosario Zorrigietak, baserriko etxeandreak, handik urte askotara kontatzen zien seme-alabei arropa garbitzeko metodoa: kanpoan sutea egin, galdara handi bat jarri arropak ur berotan garbitzeko eta txintxeak, zorriak eta bestelako bitxoak hiltzeko. Baserriko nagusiak aipatutako Rosario eta Ramiro Mezo ziren; zutik dirau etxeak Zientoetxe errepidean eta *Getxoko izenak* liburuan agertzen da. ○

Zutunik: Juan Mari Mezo, Maria Luisa Mezo (GB), soldadua, Rosario Zorrigieta (GB), Juana Mardaras (alboko baserri batekoa), soldadua. **Makurtuta:** soldadua, Paco Mezo (GB), emakumea (soldadu baten emaztea, Santanderetik etorria), soldadua, soldadua.

[aitormenak]

JULIO SOTO > Nafarroako Bertso Txapelketako irabazlea

“Abeltzaina izatea eta bizimodua bertatik ateratzea da nire ametsa”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: www.lanku.com



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Mutil oso alaia eta adar jotzailea naiz, umoretsua. Serio jartzen ere badakit, kar-kar... Lagunartea izugarri maite dut.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Pilotaria izatea gustatuko litzaidake, umetatik jolastu izan dut.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Bulego batean. Naturarekin harremana gustatzen zait, aske.

Badakazu ohitura txarren bat?

Autoa ez garbitzea. Zikin-zikina dago, auskalo noiz garbitu nuen...

Aitor dezakezun bizio bat.

Pizzak.

Zein da zure ametsetako bat?

Abeltzaina izan eta bizimodua hortik ateratzea. Beste bat? Txapelketa Nagusiko oholtzan egotea.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Zaldia. Liluratu egiten naute. Aldi berean goxoak eta basatiak dira.

Gorrotu duzun topikoa?

Gizonak ezin omen ditu bi gauza batera egin...

Zein da biharko egunkarian irakurtzea gustatuko litzazukeen berria?

Euskal Herriak lortu du bere independentzia.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Che Guevara.

Ezizenen bat duzu? Zer dela eta?

Lagun batzuk 'Txotin' deitzen didate. Soto ez omen da bertsolari baten abizena, kar-kar...

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Gorriti, dudarik gabe. Bertan hasten omen da mundua... ○

LABURREAN— Apirilaren 9an Iruñeko Labrit pilotalekuan ospatutako finalean, bere bigarren Nafarroako txapela jantzi zuen Julio Soto bertsolariak (Gorriti, 1987), Xabier Silveirari 5 puntuko aldeaz nagusituta. Gaztea den arren, eskarmentu handikoa da Soto (lagunartean 'Txotin' bezala ezagunagoa, aitortu digun bezala). 2003 eta 2004 urteetan eskolarateko txapelidun izan zen, eta 2009. urtean, Nafarroako txapelketako txapelidunorde. Azken urte bian, baina, gorritiarra izan da nagusi Nafarroan, eta egun Txapelketa Nagusiko oholtzan egotea da bere ametsetako bat. Errealitate bihurtuko ote da?

Getxo ezagutzeko ibilbideak



Ezagutu nahi duzu Getxoko flora, fauna, paisaia, aspaldiko lanbideak eta hori guztiori zelan ageri den Getxoko izenetan?

ETORRI BISITA GIDATUETARA!



Getxo barria

Eguna: Maiatzaren 28a · Ordua: 9:00ak · Tokia: Neguriko Karmengo elizan

**IZENA EMATEKO EDO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**
688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponimia@gmail.com
Ibilbidea 2-3 ordukoa izango da.
Euskaraz izango da.



Getxo
bizi ezazu



GETXO

XXVIII. ESKULANGINTZA AZOKA / XXVIII FERIA DE ARTESANIA
2011.KO MAIATZAREN 27TIK 29RA // DEL 27 AL 29 DE MAYO DE 2011

AREETAKO GELTOKIA PLAZAKO KARPAN // CARPA DE LA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
Ordutegia / Horario: 11.00-14.30 / 17.00-21.00 Larunbatean 21.30ak arte / el sábado hasta las 21.30 h.

